

Elgoibar 1337 - zenb.
XXXI. urtea - 2024/07/30



Jaiak bizi!



dentalaldaz

hortz klinikak · clínicas dentales

943 366 377

www.dentalaldaz.com

Elgoibar
San Bartolome, 22

SANBARTOLOMEETAN
ETA UDA HONETAN
ZURE IRRIBARREAK
LILURATU GAITZALA!



Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta, Nagore Cancio **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.

 facebook.com/barrenaldizkaria

 twitter.com/barreneus

 instagram.com/barrenaldizkaria

Ane Kortaberria

Ikasle ekintzailea

Jaiak, adin desberdineko elgoibartarrak elkartzeko aitzakia



"Askotan lotsa eman izan dit adin desberdineko jendearekin planak egiteak, herrian batez ere"

Herriko jaiak, besteak beste, gauza desberdinak egiteko eta probatzeko aitzakia izaten dira askotan. Hala, nire kasuan, aitzakia batzuk zeintzuk izaten diren pentsatzen jarri naiz eta honakoak etorri zaizkit burura: lagunekin elkartzea, oporrei amaiera ezin hobea ematea, eta zergatik ez, adin desberdineko herritarrekin elkartzea.

Azken honekin esan nahi dudana da askotan gustatu izan zaidala belaunaldi desberdineko pertsonak dauden eremuetan egotea. Batez ere, ikuspuntu ezberdinak ezagutzeko aukera ematen duelako eta beti zerbait berria ikasten dudalako. Baina egia da herrietan ez gaudela ohituta beti talde berean egon den norbait beste batzuekin ikustera eta hori gertatzen denean, zuzenean zerbait arrarotzat epaitzen dugula. Horregatik askotan lotsa eman izan dit adin desberdineko jendearekin planak egiteak, herrian batez ere, ez naizelako behar adina "eroso" sentitu momentu askotan.

Ohitura hauek aldatzea errazagoa egin zait kanpoan bizi izan naizenean. Ziurrenik, askotan kanpoan etxean baino errazagoa izaten delako lotsa alde batera lagatzea. Gainera, leku berrietan, gure egoera antzekoan dagoen jendea aurkitzea ere errazagoa izaten da, edo nire kasuan hala izan da behintzat.

Baina jaietan adibidez, ekintza ugari egoten dira belaunaldi desberdinetako herritarrak nahastea ahalbidetzen dutenak eta oso positiboa irizten diot horri. Niri behintzat, urtero herrian bertan jende berria ezagutzea edo aurretik bistaz ezagutzen nuen jendea sakonago ezagutzea izugarri gustatzen zait, eta herritarren artean giro polita sortzen dela iruditzen zait.

Beraz, aitzaki bat hala beste, jaietan lotsak alde batera laga eta garrantzitsuena norberak disfrutatzeke duen moduari eustea dela esango nuke. Besterik gabe, disfrutatua jaiak eta gora San Bartolome!

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jarzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Esker milla, Jesus Mari eta Mila

Azkenaldian sarri entzun arren, ez genduan sinistu nahi, baiña heldu da eguna. San Pedroko taberniak atiak itxi ditu. Alde batetik, ez genduan siñistu nahi, auzuan lagako daben hutsuniagaittik, auzotarrantzat zuen tabernia gure bigarren etxia izan dalako, baiña, beste aldetik, horrenbeste urtian lanian jardunda, ondo merezitta daukazue erretirua eta horrek ikaragarri pozten gaittu.

Aurrerantzian, San Pedroko tabernako atiak itxitta egongo dira, baiña ez zuen bihotzen ate zabalak, jakin badakigulako, orain arte bezala, hamendik aurrera ere, zuek hor izango zariela edozertarako, eta ixtiak ekarriko digun galeria, alkarrekin egoteko irabazitako denboria izango da.

Milla esker, Jesus Mari eta Mila. Lanian emandako beste urte, gitxienez, gozaten eman deizuez!

Bertan lanian jardun dozuen danori ere, eskerrik asko.

A. L.

Polioa aurkitu dute Gazan

Polioa (gaixotasun infekziosoa) aurkitu dute biztanleria dentsitate handia duen Gazako Zerrendan. Hori jakinarazi dute Gazako Osasun Ministerioak eta UNICEFek, NBERen haurrentzako agentziak. Milaka palestinar daude paralisia sortu dezakeen gaixotasunaz kutsatzeko arriskuan. Hau da marka! Errefuxiatuak dendetan bizi diren kanpalekuetako ur zikinetan topatu dute

birusa. Inongo kanalizaziorik gabe, kutsatutako ura kanpalekuko denden artean dabil, ingurua kutsatzeko arriskuan.

Israelgo armadak ur garbia lortzeko aukera gehienak suntsitu ditu, ur zikinen hustubideak ere bai, eta edateko ura lortzeko aukera oso urria da. Gainera, ospitale guztiak suntsituta edo jarduera oso murriztuta daukate, erasoen ondorioz. Gazako agintariek, Gaza erdialdean, aurreikusi dute denbora gutxian kaleak hondakin urez beteta egongo direla eta gaixotasuna zabaldu egingo dela, ezin dituztelako martxan mantendu ur zikinak ebakutzeko sistemak eta ezta ur araztegiak ere.

Hau genozidioa da! Israelen planean Gazan gaixotasunak bultzatzea sartzen da, bizitza ezinezko egiteko kanpainaren baitan.

Eta guk bitartean zer egin dezakegu?

Ez da esfortzu handirik egin behar. Egiten diren deialdietan parte hartu, egoera krudel hau salatu bakoitzak ditugun baliabieen bidez, ahal den neurrian laguntza eman eta ekarpenak egin. Guztion ardura da. Genozidioari stop!

A.I.Z.

Oharra

Abuztuan ez dugu BARREN astekaria kaleratuko. Irailaren 6an jasoko duzue ikasturte berriko lehenengoa. Ordura arte, ondo pasa!

BARREN

Jon Aranao
Guillermo Torres



Elgoibar
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Astelehenetik ostekiera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak: 11:00 - 13:00

leopoindegi zerbitzua daukagu.
Deitu ordura hartzen.



Abuztuko ordutegia
08:00etatik-15:00etara.

Abuztuaren 12tik 19ra eta
abuztuaren 24tik irailaren 2ra
itxita.

ONDO PASA JAIEGAN!

Santa Ana, 18 - Elgoibar
943 741 864



Zuen kexak, galderak edo txalok bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112



688 655 658



Igerilekuko arauak denontzat berdinak izan behar dira:

"Duela bi aste zenbait lagun kaleko arropa eta guzti sartu ziren Mintxetako igerilekura. Kaleko arropa, buruko zapia... goitik behera jantzita. Hori ez da batere higienikoa. Megafoniatik sarri errepikatzen dituzte arauak, eta esaten dute bainujantziarekin sartu behar dela uretan, beraz, ez dugu ulertzen nola baimendu zieten". Ramon Mujika kirol patronatuko zuzendariak ondorengo erantzun du: "Kaleko arropa zeramatela diozu, baina aipatzen duzun kasu horretan sorosleak bi emakume horiengana hurbildu ziren eta jantzita zeramatena ea burkinia zen galdetu zieten. Hauek baiezkota erantzutean, normaltasunez igerilekuan jarraitzen utzi zieten. Bide batez,



jakinazten dizuegu 1997tik indarrean dagoen Patronatuko instalazioen erabilera arautegia aztertzen ari garela herriko hainbat eragile eta komunitarekin, urte guzti hauetan gizarteak izan dituen aldaketetara egokitzeko. 2025erako prest izatea espero dugu".



Promozioko opariak jasotzeko eskubidea dute herritarrek:

"Mintxetako tabernan promozio berezia egin zuten, eta bi patata pakete erosita baloi puzgarri bat oparitzen zuten. Egun batetik bestera, baloiak emateari utzi zioten, nahiz eta promozioa oraindik indarrean egon eta tabernakoek esan ziguten Kirol Patronatutik debekatu egin zirela baloiak oparitzea, gero jendeak uretan sartu zituelako. Baloiarekin jolasteko leku asko dago, eta bestela, poltsan sartu eta etxera eraman dezakegu, baina ez da bidezkoa oparia ematea debekatzea. Gainera, esan ziguten Patronatuko arduradunek kendu egin zizkietela baloiak". Ramon Mujika Kirol Patronatuko zuzendariak eman ditu honi buruzko azalpenak: "Patronatuko arduradunek

ez dizkiete baloirik kendu txiringitza kudeatzen dutenei. Ekainaren 19an bilera bat izan genuen haiekin eta tartean, baloiak oparitzeak instalazioen erabilera arazoak sortarazten zizkigula komentatu genien, haur eta gazteek aldageletan era desegokian erabiltzen zituztelako eta igerilekuan baloiak erabiltzea debekatuta dagoelako. Horrelako promozioak eta izan zezaketen beste hainbat (urez betetzen diren globoak, txistuak, uretako pistolak...), erabiltzaileengan edo instalazioan eragina izan dezaketenak, ez banatzea eskatu genien. Geroztik ez gara gehiago gai honetaz beraiekin aritu". Tabernako arduradunek ere ukatu egin dute Patronatuak baloiak kendu zizkietenik eta nabarmendu dute baloiak erretiratzeko erabakia beraiena izan dela.



Gaztelekuko erabiltzaileek eskaera egin diote Udalari:

"Gaztelekuko erabiltzaile garen 32 nerabek eskatu nahi dugu gaztelekua handitu edo lekuz mugitzeko. Urte guztian zehar lanean aritu gara gaztelekuan, eta beharrezkoa ikusten dugu denontzat babesgune segurua izateko, handitzea. Horrez gain, herritik kanpo gelditzen dela pentsatzen dugu, eta horrek bertara ez joatea eragin dezake". Udalera bideratu dugu eskaera, eta Aitor Iriondo Gazteria eta Hezkuntza zinegotziak ondorengo erantzun du: "Lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkiegu gazte hauei beraien eskaera eta kezak bideratu eta helarazteagatik. Aurrerantzean ere edozein

zalantza, eskaera edo iradokizun bideratu nahi izatekotan hemen izango gara lankidetzarako. Gazteria@elgoibar.eus emailera idatzi zein Udalera zuzenean etor daiteke edonor. Hezitzaileak ere bide egokia dira gaztelekuko eskaerak bideratzeko. Eskaera konkretu honen harira, adierazi behar dugu bideratzeko zailtasun zehatzak dauzkagula, gaur egun Udalak ez baitu lokalik baldintza horiek betetzen dituenik. Hori hala izanda ere, gure jardunean kontuan izango dugu eskaera eta aukera eta baliabideak ematen direnean, zuekin harremanetan jarriko gara guztion artean bide eman ahal izateko. Gaztelekua guztiontzat toki seguru eta eroso izan dadin, jarraitu ekarpenak egiten!".



Goi mailako eskubaloi partidak antolatu ditu Sanlok abuztuaren 23rako

Sanloren 25. urteurreneko ekintzen barruan eskubaloi jardunaldia antolatu dute abuztuaren 23rako. Goi mailako taldeak lehiatuko dira Elgoibarren. Lehenik, Euskal Herriko emakumezkoen bi talde onenek jokatuko dute elkarren aurka, Barakaldoko Zuazok eta Donostiako Bera Berak. 18:00etan hasiko da gipuzkoarren eta bizkaitarren arteko norgehiagoka. Bigarren partidan, berriz, Irungo C.D. Bidasoa eta BM. Logroño La Rioja taldeek jokatuko dute. Asobal Ligako txapeldunorde izan da Irungo Bidasoa eta laugarren postuan sailkatu da Logroñoko La



Rioja. Olaizaga kiroldegian jokatuko dute, 20:00etan.

Sanlok Elgoibarko Udal Kirol Patronatuaren eta Gipuzkoako Eskubaloi Federazioaren laguntzarekin antolatu du jarduera hori.

Kilimon bailaran bi PR edo ibilbide labur markatuko dituzte

Kilimon Trail mendi lasterketaren ibilbidea Ibilbide Labur (PR) kategorian sartzeko seinalizazio, egokitze eta garbitze lanak hasi dituzte. Kilimon Trail mendi lasterketa antolatzen duten Mendaroko Txirrindularitza Elkarteko eta Lizarpe Mendi Klubeko kideen eskariz hasi zuten egitasmoa joan zen legegintzaldian eta Mendi Federazioarekin eta Udalarekin jarri ziren harremanetan. Harreman horrek fruitua eman du, eta dagoeneko martxan dira Kilimon bailarako bi ibilbide PR bihurtzeko lanak.

Mendaroko Udalak 15.257 euroko aurrekontua (BEZ barne) bideratu du proiektu hau gauzatzeko, eta lanak udazkenerako amaituta egotea aurreikusten dute. Tarte horretan, ibilbideak finkatu, balizatu (hamar baliza jarriko dituzte guztira), hamabi poste eta hogeita bost gezi jarri, eta mapa batean bidea markatuko duen panel bat diseinatu eta kokatuko dute. Era berean, egurrezko eskaierak ere jarriko dituzte bidean, irisgarritasuna bermatzeko, eta bideak ere garbituko dituzte, sasiz eta abarrez.

Erabiltzeko moduan dago bidegorriko komun publikoa



Elgoibarko Udalak 2021. urtean erosi zuen bidegorrirako komun auto-garbigarri bat, baina gordeta eduki behar izan zuten komunaren kokagunea eta beste zenbait kontu erabaki zituzten arte. Maltzagan ipintzea erabaki zuten azkenean. Eibarko Udala arduratu da komuna jartzeaz eta obra zibilaz. Proiektuaren aurrekontua 96.768.66 eurokoa izan da (BEZ barne). Lanak amaitu ostean erabiltzeko moduan dago. Ordutegi hau izango du: 07:00etatik 22:00etara.

Joseba Gonzalez azkoitiarra izango da Elgoibarko parrokoa

Joseba Gonzalez apaiz azkoitiarra izango da Elgoibarko eta Soralezuko parrokoa, irailaren 1etik aurrera. Gonzalezek 55 urte ditu. Azken urteak Pasai San Pedron egin ditu parroko lanetan, eta aurretik Gipuzkoako bikario nagusi izandakoa da. Bitoriano Etxaberen partez iritsiko da Debabarrenera. Benantzio Otaegiren lekua hartu zuen Etxabek 2022ko San Bartolome Egunean, eta bi urtez egon da karguan.



Desfibriladoreak udaltzainen autoetan

Udaletik jakinarazi dutenez, herriko hainbat gunetan ipinita dauden bezalako desfibrilagailuak jarriko dituzte udaltzainen bi ibilgailutan. Herrian ezartzen ari diren kardiobabeserako sistema honen helburua prebentzio-eredu bat sortzea dela zehaztu dute, bihotz-biriketako geldialdian dauden pertsonei premiazko laguntza emateko. Duela urtebete, Udalak kardiobabeseko sistema ezarri zuen udalerrian, eta ekimen horren barruan jarri zituzten desfibrilagailuak herriko hainbat gunetan, eta 100 lagun prestatu zituzten gailu horiek erabiltzeko. Maialen Gurrutxaga alkateak adierazi duenez, Udaltzaingoaren patruila-



autoetan desfibrilagailuak jartzea urrats garrantzitsua da kardiobabeseko estrategiaren baitan. Udaltzainek prestakuntza-ikastaro bat egin dute RCP-Soporte Vital Basikoan eta desfibriladorearen erabileran trebatzeko.

Euskara herrian bertan ikasteko aukera izango dute Mendaron datorren ikasturtean ere

Euskara eskolei jarraipena eman nahi die Mendaroko Udalak irailetik aurrera, eta horretarako euskara ikasi nahiko luketenei izena emateko eskatu die. Irailaren 14a arteko epea dago izena emateko. Horretarako telefono zenbaki bat eta posta elektronikoko bat zabaldu ditu, interesa dutenek izena eman dezaten. Izena ematerakoan zer premia duten zehaztu behar dute interesatuek, horren arabera taldeak osatu ahal izateko gero. Izena emateko 943 033 282 telefono zenbakira deitu behar da 09:00etatik 14:00ak bitartean edota mendarokoeuskaltegia@gmail.com posta elektronikora idatzi.

Maiatzean baino langabe gehiago ekainean

Ekain amaierako datuen arabera, Elgoibarko 499 langabe daude erregistratuta enplegu bulegoetan, hilabete lehenago baino 11 gehiago. Debabarrena eskualdeko sei herritako (Deba, Eibar, Elgoibar, Mendaro, Mutriku eta Soraluze) datuei begira, langabezia-tasa %10,21ekoa da. 2.642 langabe zenbatu dituzte eskualdean ekainean, maiatzean baino bost gehiago. Lau herritan gora egin du langabeziak eta behera egin du Eibarren eta Soraluzen, hain justu langabezia tasa altuena duten eskualdeko bi herrietan. Debak jarraitzen du langabezia-tasarik baxuena izaten (%5,99) eta Eibar da tasa altuena duena (%12,22). Gainontzeko herri guztietan langabezia-tasa %10etik beherakoa da. Hona hemen datuak herriz-herriz:

- Eibar: 1.531 (%12,22)
- Elgoibar: 499 (%9,35)
- Mendaro: 80 (%8,1)
- Deba: 158 (%5,99)
- Mutriku: 184 (%7,01)
- Soraluze: 190 (%10,87)



LANBIDE HEZIKETAREN 125. URTEURRENARI AITORTZA TXUPINAZOAN

✍️ Ainhoa Andonegi

1899ko irailaren 18an sinatu zuen Elgoibarko Udalak Lanbide Heziketako eskola sortzeko baimena ematen zuen agiria. 125 urte beteko dira ordutik, eta hainbat herritarrez osatutako batzordea lanean ari da egun horretan bertan ospakizun berezia egiteko. 24-25 ikasturterako egitaraua prestatzen ari dira, eta irailaren 18an izango du hasiera ofiziala. Horren aurretik, baina, San Bartolome jaiei hasiera emateko ohorea izango dute, abuztuaren 23an, 13:00etan. IMHko Lanbide Heziketako zuzendari Alaitz Bastida, Mekako zuzendari Jose Mari Beristain eta Mekako zuzendari eta IMHko irakasle izan zen Jose Mari Bastida igoko dira udaletxeko balkoira, jaien hasierako txupina piztera. Orriotan laburbildu dugu Elgoibarko Lanbide Heziketaren historia.

1899an Marrazki Akademia inauguratu zuen Elgoibarko Udalak, herriko bizilagunek hala eskatuta. Garai hartako artisau industriarako langileak prestatzeko beharra ikusi zuten herrian, eta Udalak ontzat eman zuen eskari hura. Bernardo Ezenarro izendatu zuten zuzendari, 26 urte zituela. Bernardo Ezenarro Aranburu Elgoibarren jaio zen 1873ko abuztuaren 20an. 13 urtera arte Elgoibarren ikasi zuen, eta ondoren Eibarko Arte eta Lanbide Eskolan sartu zen. Marrazketa linealean eta apainketan nabarmendu zen hasieratik. Gero Donostiako Arte eta Lanbide Eskolan aritu zen zortzi urtez, eta hainbat diploma eta sari jaso zituen. Miguel Mendizabal zuen irakasle eta Parisera

joatea gomendatu zion, ikasketetan sakontzera. Elgoibarrera itzuli eta Marrazki Akademiaren ardura hartu zuen gero. Hori hartzen dute Elgoibarko Lanbide Heziketaren hasieratzat. Egungo Aita Agirre eraikinean kokatuta zegoen eskola hura.

1916an Arte eta Lanbide Eskola bilakatu zen, Teodoro Alkorta alkate zela udal korporazioak 1916ko otsailaren 7an hartutako erabakiaren ondorioz. Bernardo Ezenarrok hartu zuen zuzendaritza kargua, eta 1951ra arte iraun zuen eskolak. Urte horretan, irailaren 22an Elgoibarko Lanbide Heziketako Institutua eratu zen, eta bi urte geroago ikastegi ofizial izendatu zuten ministroaren aginduz.

DATA ESANGURATSU BATZUK

■ **1953** Urriaren 15ean Lanbide Heziketako Batzorde Zentralak erabaki zuen Lanbide Heziketako Mekanika deitu beharrean, Lanbide Orientazioa eta Heziketa deitzea eskolari. Ikasketa plana ere onartu zuten, orientazio profesionalerako bi ikasturte eta hobekuntzarako beste bi izango zituen.

■ **1954/1955** ikasturtean Lanbide Heziketako Zuzendaritza Nagusiak Patronatu berria izendatu zuen, eta Lanbide Heziketako behin-behineko patronatuaren eskumenak eman zizkioten.

■ **1966** Urtarrilaren 15ean Jose Maria Bastida izendatu zuten ikasketaburu.

■ **1967** Ikaskuntza titulurako delineazio adarra baimendu zuten.

■ **1969** Maisutza gradua emateko baimena eman zuten.

■ **1974** Izen berria ipini zioten eskolari: Elgoibarko Lanbide Heziketako Ikastegi Nazionala.

■ **1974** Urriaren 9an Jose Maria Bastida izendatu zuten zuzendari, Juan Antonio Trincadoren orde.

■ **1975** Administraritza irakasteko baimena eskatu zuten. Emakumezkoek eskatzen zituzten ikasketak egiteko ez zegoen ikasketa ofizialik, eta gizartearen eskaerari erantzun nahi izan zioten. Ana Etxeberriarekin (Señorita Anita) egin zituzten bilerak, ordurako akademia bat zuzentzen zuelako, eskolatik gertu. Urriaren 17an hasi ziren adar horretako ikasketak eskaintzen. Señorita Anitaren ikasle guztiak matrikulatu ziren eta bera izendatu zuten irakasle. 78/79an utzi zuen lanpostua.

■ **1976** Metaleko adarra, makina erremintaren espezialitatearekin, lehen gradutik bigarrenera zabaltzeko eskatu zuten. Urte berean, Hezkuntza Ministerioari eskatu zioten eskolak euskaraz emateko baimena. 76-77 ikasturtean ekin zioten horri Alfonso Guillo, Itziar Konde eta Miren Vallejo irakasleek.

■ **1978** Ikastetxea handitzeko proposamena onartu zuten.

■ **1982** Automobilgintza Mekanika eta Elektrizitateko Bigarren gradua baimendu zuen Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak.

■ **84-85** Ikasturtean egin zituzten handitze lanak.



*Mekanika Eskolako ikasgela, 1953. urtean.
Irakaslea: Pedro Gabilondo.*

IMHren SORRERA 1986an

1986an Elgoibarko Lanbide Heziketako Institutuko irakasle talde batek ikastetxearen zuzendaritza hartu zuen, Jose Rejok gidatuta. Makina erremintaren sektoreko enprekin harremanak sendotzea zuten helburu. Krisi ekonomikoak eta matrikula kopuruaren beherakadak ikastetxeko metalaren adarra arriskuan jarri zuen eta zuzendaritza talde berriak enpresen laguntza lortu zuen. Enpresen, Udalaren, AFMren eta Adegiren laguntzak indartu egin zuen proiektua. Ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, sindikatuak eta finantza entitateak batu ziren. 1989ko abenduaren 21ean Makina Erremintaren Arloko Prestakuntza Teknikorako Fundazioa (FFTMH) sortu zuten, Makina Erremintaren Institutu esperimentalaren sustatzeko helburuarekin. 1986ko maiatzean, Jose Rejo Rejo izendatu zuten zuzendari. Ikastetxearen helburuen artean zeuden metal arloko ikasketak makina-erremintaren sektorearen arabera eguneratzea, langabeak eta profesionalak prestatzea, tokiko ETEei zerbitzua ematea eta enprekin harreman iraunkorrak ezartzea. Hori guztia lortzeko instalazio berria sortzea erabaki zuten, eta 1990-91 bitartean eraiki zuten, 8,5 milioi eurotik gorako inbertsioa eginda.

2015ean egokitu eta eraldatu egin zuten IMH, eta urte horretan Asmaola proiektua jarri zuten martxan. Prestakuntza Bereziko Ikastetxea eta Fabrikazio Aurreratuko Berrikuntza Zentroa izatea zuten helburu. Gaur egun, IMH eta Meka, biek osatzen dute Elgoibarko Lanbide Heziketa.

*Informazio iturria: Altxolatarren Dorretxea
Filatelia elkarteak zigilu erakusketaren harira
ateratako liburuxka.*

GOKI

erreformak



FATXADA BIRGAITZEAK

S.A.T.E.
FATXADA AIREZTATUAK
BIRGAITZE TRADIZIONALA
BALKOEN BIRGAITZEA



ESTALKI ETA TEILATUAK

ERABATEKO BIRGAITZEAK
TERRAZA ETA ESTALKI LAUAK
MANTENTZE LANAK
SEGURTASUN SOKA FINKOAK



BARNE ERREFORMAK

ETXEBIZITZAK
LOKAL KOMERTZIALAK
BULEGO ETA ENPRESAK
SUKALDE ETA BAINUGELAK



IRISGARRITASUNA

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA
IGOGAILU INSTALAZIOAK
0 KOTA



BULEGO TEKNIKOAK

ERAIKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOAK
EFIZIENTZIA ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK
ERAIKUNTZA PROIEKTUAK

ELGOIBAR
943 74 42 23

SORALUZE
943 12 57 41

BERGARA
943 76 53 42



ZURE ALDE

KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA
ABOKATUAK

JAUSORO PLAZA 3. BEHEA
688777883

zurealde.elgoibar@gmail.com

Ondo pasa jaietan!



Meka

Lanbide Eskola

Ondo pasa San Bartolome jaixetan!

“Ume eta nerabeek ez dute kontsumitzaile hutsak izan nahi jaietan; aktiboki parte hartu nahi dute”



NAIARA MARTIN

Atxutxiamaikako arduraduna

 Ainhoa Andonegi

Bigarren urtez jaietako eragileetako bat izango da Atxutxiamaika. Udalak eskatuta, Umeen eta Nerabeen egunetako hainbat jarduera hartu ditu aisialdi taldeak bere arduran, eta horiek diseinatzeko, parte-hartze prozesua gauzatu dute. Naiara Martin Atxutxiamaikako arduradunak Umeen Egunaren inguruan egin du ikasketen Gradu Amaierako Lana, eta lan horretarako egindako elkarrizketetatik ondorioztatutakoak erabili ditu parte-hartze prozesua diseinatzeko. Bere ondorio nagusia izan da jaietan komunitatea lantzeko eta kultur transmisioa eman dadin, ezinbestekoa dela haurrek eta nerabeek ere aktiboki parte hartzea.

Bigarren urtez izango da Atxutxiamaika sanbartolomeetako eragile. Zein izango da jaietako egingo diezuen ekarpena?

Bai, aurten ere eskatu digu Udalak ekintza batzuk kudeatzea eta baietza eman dugu, iruditzen zaigulako garrantzitsua dela Atxutxiamaika jaietan eragile izatea. Gure balioen arabera diseinatu eta kudeatuko ditugu ekintzak. Iaz eskatu zigun Udalak estreinakoz Umeen eta Nerabeen eguneko zenbait ekintza kudeatzeko, eta egia da denbora

gutxirekin ibili ginela gauza berriak prestatzeko, baina eguna nola joan zen ikusita, aurten beste lanketa bat egin dugu.

Nola joan zen ba eguna?

Konturatu ginen bazkalostean umeak berehala joan zirela barraketan ibiltzera, egun horretan euro batean egoten direlako, eta horrek ez du aukerarik ematen bazkalostean ezer antolatzeko. Ez dira adin desberdinetako umeak nahasten, ez dituzte lagun berriak egiten, bakoitza bere betiko taldearekin egoten da... Guk ez genuen hori nahi. Horren paraleloan, Gradu Amaierako Lana egitea egokitu zitzaidan, eta Umeen Eguna aukeratu nuen gai moduan. Lan hori egiteko elkarrizketak egin nizkien udal ordezkarietara, teknikarietara, gurasoetara, nerabeei eta umei, eta ondorioztatu nuen ume eta nerabeek parte-hartze aktiboago baten beharra zutela. Ume eta nerabeek ez dute kontsumitzaile hutsak izan nahi jaietan. Jaiak komunitatea lantzeko eta kultur transmisiorako tresna baldin badira, eta nik uste dut badirela, ume edo nerabeak ezin dira kontsumitzaile huts izatera mugatu. Era berean, ikusi dut belaunaldi eta kolektibo desberdinak nahastu beharra dagoela, hiritartasuna, herrigintza eta kultur transmisioa lantzeko, eta horretarako, parte-hartzea ezinbestekoa da.

Nola prestatu dituzue ekintzak?

Parte-hartze prozesu bat diseinatu genuen. LHko 125 umeren iritzia jaso dugu, galdetegi



baten bidez eta Ludotekan egindako pare bat saioen bidez. Umeei galdetu diegu zer nahi duten, eta erantzun horietan oinarrituta hartu ditugu erabakiak. Abenduan hasi genuen prozesua, udaldian izan du segida, eta sanbartolomeetan amaituko da. Hausnartuta eta landuta prestatu ditugu aurtengo ekintzak, eta jaien ostean balorazioa egin beharko dugu, baina nik uste dut ekarpen positiboa egin dugula. Eragile asko bildu ditugu: Jubilatuen Elkartea, Inazio Bereziartua Musika Eskola, Bergarako Erraldoi eta Kilikien Konpartsa, udal ludoteka eta udal gaztelekua, Elgoibarko Erbuze Konpartsa, Atxutxiamaika...

Zeintzuk dira berrikuntza nagusiak?

Irudi lehiaketa kudeatu dugu ume eta nerabeen artean, eta irudi irabazleekin egin ditugu kamisetak. Ume bakoitzak bere gustuko kolorea aukeratu du. Horrez gain, gehiengoak bazkaria etxetik ekartzea nahi zuen, eta horrela egingo dugu. Baina postrea momentuan prestatuko dute, eta tarte horretan uste dugu harremanduko direla. Adinka jarri nahi dutela ere esan zuten, beraz, bi adin tarte bereiztuko ditugu: LH1-LH3 eta LH4-LH6. Bazkalostean aulki-joko erraldoia egingo dugu; udaldian ere egin genuen eta oso ondo funtzionatu zuen. Bergarako erraldoiak ere etorri ziren udaldian gure herriko haurrei erraldoiak nola dantzatzen ziren erakustera, eta horrez gain, Erbuze konpartsako zenbait kidek erraldioen eta buruhandien inguruko azalpenak eman zizkieten bi egunetan haurrei. Jaietan, herriko haurrek aukera izango dute Bergarako erraldoi txikiak eramateko, Mauxitxa eta Beti Sua txarangak lagunduta. Apar festa ere eskatu zuten, eta egongo da. Bustitzeko arropak eta uretako betaurrekoak ekartzea komeni da ekintza horretarako. Bazkariko lanak ere banatu egingo ditugu. 13:00etarako deitu ditugu plazara eta beraiek erabakiko dute zer lan egin: mahaia jarriko dute batzuek, zakarrak batu besteek... Beraiek izango dira eragileak egun horretan. Propio 0-5 urtekoentzako ekintzarik ere ez zen ezer egoten jaietan, eta aurten jolasgunea jarriko dugu Bolatokian haientzat.

Berrikuntzen artean, ume eta jubilatuek elkarrekin banatuko duten hamaiketako ikusi dugu.

Elgoibarren bi kolektibo ditugu jaietako egun horretan bat egiten dutenak: umeak eta jubilatuek. Urteetan partekatzen dute eguna

"Ume eta nerabeei galdetu diegu zer nahi duten eta erantzun horietan oinarrituta hartu ditugu erabakiak"

jaietan, baina sekula ez dute ezer egin elkarrekin. Jubilatuen Biltokioekin hitz egin nuen, eta ondo ikusi zuten zerbait egitea elkarrekin, beraz, egun horretan hamaiketako prestatu eta elkarrekin banatuko dute, sokamuturraren ostean, plazan. Txerrikirik jaten ez dutenentzat halal haragia egongo da, inklusioa ere badugulako zeharlerrotzat.

Nerabeen Eguneko bazkaria ere berria da.

Elkarrizketen ostean ikusi nuen nerabeek ez dutela egitarauan ezer bereziturik beraientzat. Umeen bazkarira joateko nagusiegiak dira, eta aldiz, gazteen bazkarira joateko, umeegiak. 12-16 urtekoentzako bazkaria prestatu dugu, eta umeen kasuan bezala, beraiek egingo dituzte prestaketa lanak, postrea... Bazkalostean elkarrekin harremantzeko ekitaldiren bat ere eskatu zuten, eta ondorio hori ere transmititu genion Udalari. Bazkalosterako, beraz, Udalak erromeria antolatu du Kitziki taldearekin, eta gero, Oihan Vegaren emanaldia ere egongo da. Egun horretan goitibehera eta drift trike jaitziera kudeatzea ere gure arduraren egongo da.

Barrakak oztopo bezala aipatu dituzu.

Bai, elkarrizketetan barraken gaia sarri errepikatu zen: garestiak direla, baztertzaileak dirurik ez dutenentzat edo paga handirik ematen ez dietenentzat, egunero daudela plaza publikoa okupatzen ordu pila batez, zaratatsuak direla... Herri erdian daude eta ezin da ihes egin barraketatik; atsedean egunetan ere hor daude, sirenekin umei deika... Ondorio hori bota nuen Udalak sustatutako jai batzordean hausnarketarako, eta nik herrigunetik ateratzea proposatzen dut. Aurten ez dut uste garaiz gabiltzanik, baina aurrera begira aintzat hartzeko gaia dela iruditzen zait. Gainera, barrakei esker umeek badute asebetetze sentsazioa, egunero daudelako barrakak, baina jaiak ez dira hori. Umeekin kultura landu nahi bada, barrakek izugarritzko kompetentzia egiten dute.

Gabi
jate + ea

943 741 230

Sarbartolomeetarako
egin zure erreserba!
Ez geratu lekurik gabe.

Ondo pasa jaiak!



 **MAPFRE** **943 740 582**

San Frantzisko, 40, behea - patxiza@mapfre.com

Ondo pasa jaietan!



**AUTO ETA MOTORREN ASEGURUAK ■ ETXE-ASEGURUAK
OSASUN-ASEGURUAK ■ ERRETIRO-ASEGURUAK ■ FAMILIAREN BABESA**

 **ASKETA S.L.**

**ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA
SERVICIO INTEGRAL DE OBRAS**

943 191 952

ondo pasa jaietan!!!

 **ELGOIBAR
BHI**

Arregitorre 2
943 899 316
013431aa@hezkuntza.net
www.elgoibarhi.eus





Jai zoriontsuak!

Egitarau ofizialeko kultur eskaintza, begi kolpe baten



Lanbide Heziketakako ordezkariak botako duten etxafuegoarekin hasiko dira aurten sanbartolomeak Elgoibarren. Ofizialki, abuztuaren 23an hasiko dira jaiak, baina bezperatik jai-giroa izango da herrian, Gune Askekoek ere lotu dituztelako hainbat ekintza abuztuaren 22rako, tartean erreka garbitzea. Egitarau ofizialeko kultur eskaintzaren handiena batu dugu hemen eta Brilllet eta Patxangoi herriko taldeei egindako elkarrizketak aurreko bi orrialdeetan. San Bartolome egunez emango du kontzertua Brillletek, Kalegoen plazan, 22:00etan hasita, eta Baserritarren Egunean irtengo da kalera Patxangoi elektrotxaranga, 18:30ean. Maalan hasiko dute ibilbidea.

Ainara Argoitia

Sei eguneko jaiak izango dira aurten sanbartolomeak, ofizialki bederen. Orrialde hauetan jaietako egitarau ofizialeko kultur eskaintzaren handiena jaso dugu, baina urtero moduan, hemen bildutakoa baino gehiago ere izango da. Izan ere, egitarau ofizialaren barruan bertan ere, aipatzekoak dira herriko hainbat eragilek sanbartolomeetako kultur eskaintza aberasteko egingo duten ekarpena, eta horri Gune Askekoek antolatutako egitaraua ere gehitu behar zaio. Egitarau ofizialaren barruan, aipatzekoak dira, esaterako, Haritz Euskal Dantzari Taldekoek,

Udal Txistulari Taldekoek eta haiekin batera arituko diren Iruñeko eta Guardiako dultzaineroen taldekoek, Udal Musika Bandakoek, Erbuze konpartsakoez, herriko trikitilariak eta Mautitza txarangakoek egingo dituzten dantzaldi, kalejira, kontzertu eta abarrak. Era berean, aipatzekoa da, baita ere, abuztuaren 23an, San Bartolome bezpera egunean, Pello Arrieta eta Javier Elorza historialariarekin San Bartolome parrokiara egingo den bisita gidatua. Bi hizkuntzatan emango dituzte azalpenak, eta bisita bi ordukoa izango da, 10:00etan hasi eta 12:00ak artekoa.



DANEL LEGORBURU

Patxangoi taldeko kidea

✍️ Ainhoa Andonegi

Etiketarik datorkio Danel Legorbururi (Elgoibar, 1998) musikarako zaletasuna. Gurasoak eta osaba txistulariak ditu, eta ume-umetatik bizi izan du musika etxean. Perkusioa jotzen du, eta hainbat musika taldetako kidea da. Musika Eskolako hainbat taldetan hasi zuen ibilbidea eta gaur egun Mautitza Txaranga, Udal Txistulari Taldean, Jezzy's Tyros eta Patxangoi taldeetan dihardu. Sanbartolomeetako Baserritarren Egunean ikusiko ditugu azken hauek, elektrotxaranga formatuan, kaleak dantzan jartzen.

“Guri asko gustatzen zaigu elektrotxarangaren formatua eta herritarrek ere asko disfrutatzen dute”



Nola eta noiz hasi zinen zu musikan?

Nire musika ibilbidea etxean hasi zen. Gurasoak eta osaba txistulariak dira, eta etxean beti izan da musikarako zaletasuna. Gurasoen rock estiloko musika gustatzen zaie bereziki, eta euren gustatzen zitzaizena jartzen zidaten. Hori izango zen gerora niri gustatuko zaidana. Musika Eskolan sartu nintzen gero, eta instrumentua aukeratzea tokatu zenean, pianoa eta perkusioa aukeratu nituen. Pare bat urtez aritu nintzen biak ikasten, baina ni ez naiz geldirik egotekoa eta konturatu nintzen pianoa ez zela niretzako instrumentua. Perkusioarekin jarraitu nuen, eta musika eskolako hainbat taldetan ibili nintzen. Gerora Udal Txistulari Taldean sartu nintzen, 17 urte nituela deitu zidaten Mautitza txarangatik eta lagunekin hainbat musika taldetan jotzen dut. Ordu asko eskaintzen dizkiot musikari; asko gustatzen zait.

Hainbat musika taldetan diharduzu gaur egun.

Musika Eskola amaitu genuenean musikan jarraitzea nahi genuen lagun talde bat elkartu ginen. EME (Elgoibarko Musikarien Elkarte) elkartearekin jarri ginen harremanetan, eta hango lokal batean hasi ginen jotzen Iñigo Arrese, Aitor Asenjo eta hirurok, eta gerora Joseba Astigarraga batu zitzaigun. Jezzy's Tyros taldea sortu genuen. Oraindik taldearekin jarraitzen dugu, Mautitxan ere banabil, Txistulari taldean eta La Roita Erronkako musika atalaren arduraduna ere banaiz. Eta azkena sortu dugun proiektua Patxangoi elektrotxaranga izan da.

Baserritarren Egunean irtengo zarete kalera. Nola hasi zen Patxangoiren ibilbidea?

Orain dela urtebete sortu genuen taldea, baina Patxangoiren ideia aspalditik dator. Gaur egun elektrotxaranga oso modan



daude, eta Elgoibarren ez zegoenez elektrotxarangarik, pentsatu genuen ona litzatekeela bat sortzea. Azken batean denok gara dantza edo musika mundukoak eta hau asko gustatzen zaigu. Parrandetan beti ateratzen genuen gaia, eta azkenean iritsi zen eguna. Iazko La Roita erronka egunerako erronomia talde bat ekartzea aurreikusi genuen, baina azkenean kale egin zigun. Kuadrillakoei esan nien elektrotxarangaren ideiarekin ari ginela, eta prest geundela egun horretan probatzeko. Baietz esan zuten, eta horrela irten ginen lehenengo aldiz. Oso ondo hartu gintuzten, eta pozik geratu ginen. Nik eta Amaia Sasiainek abestu egiten dugu; Aitor Asenjok gitarra jotzen du, Joseba Astigarragak baxua, Iker Aranburuk eta Gaizka Urangak perkusioa, Ander Torquemadak tronpeta eta Unai Arregik tronboia. Mikele Albizu teknikari lanetan ibiltzen da, eta tarteka abestu ere egiten du.



Urtebete han eta hemen ibili zarete kontzertuak ematen, eta Azpeitiko elektrotxaranga lehiaketan ere hartu duzue parte.

Bai, izena eman genuen eta ez genuen espero deitza. Sorpresa izan zen guretzat eta sekulako esperientzia izan zen. Hura beste liga bat zela konturatu ginen, baina harrera oso ona izan genuen. Norbere herrian jotzea berezia da beti, etxeok dira guztiak, eta jende asko etortzen da gu ikustera, baina kanpoan ere oso ondo hartu izan gaituzte. Barakaldon, esaterako, urtebete lau aldiz jo dugu, Sondikan ere izan ginen, Ugaon ere bai... Jende askok esan zigun oso ondo jotzen genuela eta horrek segitzeko ilusioa eman zigun.

Perkusioarekin taldearen atzealdean egoten zara, baina Patxangoin abestu egiten duzu, aurreurrean jarrita. Nola animatu zinen abestera?

La Roita erronkaren 2022ko edizioan Jezzy's Tyros taldearekin jo behar genuen. Iñigo Arrese da taldeko abeslaria, eta egun horretan ezkontza zeukan. Esan nien taldekideei probatuko nuela nik abesten. Entseguak egin genituen eta gustura geratu ginenez, hala egin genuen zuzenekoan: Gaizka Uranga aritu zen bateria jotzen eta ni abesten. Lagunek ez zekiten modu horretan irten ginenik kalera eta oso polita izan zen.

Zein da elektrotxarangen arrakastaren sekretua?

Kalean jotzea dela esango nuke. Kontzertu batera norbera joan behar da, eta elektrotxaranga kalean poteoan ari zarela agertzen da. Guri asko gustatzen zaigu formatua eta herritarrek ere asko disfrutatzen dute. Ska eta rock estiloko kantuak jotzen ditugu asko, abesti ezagunak dira guztiak.

Mauixtako eta Txistulari taldeko kide ere bazara. Oso giro desberdineko taldeak dira.

Bai, oso desberdinak dira, baina niri biak gustatzen zaizkit. Egia da jaietan parranda egin ostean txistulariekin diana jotzea batzuetan kosta egiten dela, baina gustura egiten dut hori ere. Hala ere, onena Txiki Eguneko txaranga izaten da. Txarangako kide izan baino urtebete lehenago igo nintzen plazako eszenatokira danborra jotzera, eta han sentitu nuena sekulakoa izan zen. Hurrengo urtean sartu nintzen txarangan, eta egun hori txaranga barrutik bizitza izugarria da. Herritarrek gozatu egiten dute eta guk ere bai. Bost orduko kalejira izaten da, eta jendeak izaten duen jarrera txalotzekoa izaten da. Errespetatu egiten gaituzte, eta eskertzen dute gure lana.



BRILET, JAIETAN LAUKOTE BIHURTUTA

Abuztuaren 24an kontzertua emango du Elgoibarko Brilet taldeak, Herenegun erromeria taldearen aurretik. Nerea Gil (ahotsa), Jesus Jimenez (baxua) eta Asier Olabarrietak (gitarra) osatzen dute Brilet, baina sanbartolomeetako kontzertuan Iñigo Barrenetxea izango dute lagun baterian.

  Ainhoa Andonegi

Asier Olabarieta eta Jesus Jimenez aspalditik dira lagunak eta elkarrekin jotzen zuten Islabat taldean. Asier Olabarrietaren proiektua da Islabat, berak sortua. Pandemia ostean kontzertua eman zuten Elgoibarko zenbait taldek sanbartolomeetan, tartean Islabat taldeak, eta kontzertu hartarako Nerea Gil gonbidatu zuten: "Zerbait berezia egin nahi genuen kontzertu hartan, eta Silvia Hernandez musika eskolako koro irakasleak gomendatuta jarri ginen harremanetan Nerearekin". Hiru kanta abestu zituen Nerea Gilek Islabat taldearekin, eta oso gustura geratu

ziren emaitzarekin. Ordurako hasita zeuden Asier Olabarieta eta Jesus Jimenez proiektu berri bat sortzeko ideiarri bueltak ematen, eta irailean Gili proposatu zioten hirukotea osatzea. 2022ko irailean hasi ziren probatzen. Zerbait desberdina egin nahi zuten, baina ez zeukaten estiloa definituta, eta esperimentatzen hasi ziren. Nerea Gil ere gogotsu zegoen. Betidanik abestu izan du, eta musika proiektu batzuetan parte hartua zen aurrez, baina musika talde batean sekula ibili gabe zegoen: "Asko gustatzen zait abestea, eta taldea osatzeko proposamenak ilusio handia egin zidan". Idatzi ere betidanik egin du, eta kanta asko dauzka idatzita.

Olabarrietak elektronika sartu nahi zuen, eta horrela hasi ziren esperimentatzen, hainbat talderen bertsioak jotzen. Pop-rock elektronikoa egiten dute bereziki, baina estilo asko lantzen dituzte, eta oso kanta desberdinak egiten dituzte: "Musika abaniko zabala daukagu, denetik gustatzen zaigu eta ez gaude estilo zehatz batean zentratuta", esan du Olabarrietak. Kantak hiruren artean sortzen dituzte, oso modu demokratikoan: "Normalean Nereak ekartzen du letra bat eta hasten gara horri musika jartzen. Irten daiteke abesti rockero bat edo doinu afrikarrak dituen beste bat. Elektronikak

ematen digu aukera ohiko formato klasikotik aldendu eta gauza berriak egiteko". Gil pozik agertu da abestia sortzeko erabiltzen duten sistemarekin, eta esan du beste biek oso aintzat hartzen dituztela bere proposamenak, entzuna eta errespetatua sentitzen dela taldean eta oso gustura dagoela. "Batuetan dena hankaz gora jartzen dugu eta hasierako proposamenak ez dauka amaierako emaitzarekin zerikusirik, baina denon artean adosten dugu", gaineratu du Jimenezek.

Taldeari izena jartzeko momentua ere iritsi zitzaizen halako batean, eta hirurek aitortu dute abestiak sortzea baino zailagoa egin zitzaizela taldearentzako izen egokia aurkitzea. Ez dakite oso seguru nola aukeratu zuten izen hori ere, eta txantxetan esan dute asmatu beharko dutela istorio polit bat izena arrazoitzeko, baina gaur gaurkoz ez daukate horrelakorik eta Bilet gehiegi pentsatu gabe aukeratu zutela aitortu dute: "Hasi ginen hitzak botatzen, eta belarrira ondo ematen zuela iruditu zitzaigun".

Kontzertuak ematen hasita daude, eta estreinakoz Elgoibartik kanpo jo berri dute, Saturraranen. Etxean jo izan dute bestela, eta eroso sentitzen dira Elgoibarren jotzen, publikoa ezaguna dutelako. Sanbartolomeetan irtengo dira berriz jende aurrera, Kalegoen plazako eszenatokira: "Handia da eszenatokia, eta handia da plaza", esan du Gilek. Urduritasun puntu bat duela nabari zaio. "Azken kontzertua taberna baten eman genuen, eta ez dut gutxietsi nahi, baina plazara irteteak beste ardura eta errespetu bat ematen du. Ni beti jartzen naiz urduri". Egun horretarako Iñigo Barrenetxea gonbidatu dute, eta berak joko du bateria. Egun hauetan ibili dira entseguak egiten, eta gustatu zaie entzun dutena: "Abestiek soinu desberdina hartzen dute bateriarekin, rockeroagoa da soinua eta gustatu zaigu nola geratzen diren kantak", esan du Olabarrietak. EME elkartetik ezagutzen zuten Iñigo Barrenetxea, baina sekula elkarrekin jo gabe zeuden eta aitortu dute guztiek oso ondo konektatu dutela. Barrenetxea bera ere pozik



Sanbartolomeetan abesti propioak eta talde ezagunen bertsoiak uztartuko dituzte, Iñigo Barrenetxea baterian lagun dutela.

agertu da: "Oso ondo hartu naute, eta gozatzen ari gara elkarrekin. Musikan kimika hori sortzea garrantzitsua da". Olabarrietak esan du loteria tokatu zaiela Barrenetxearekin, eta kontzertua ondo irtengo dela uste dute: "Oso langilea da, eta primeran egokitu da taldera". Teknikari lanetan ere lagun bat izango dute, eta horrek konfiantza handia ematen die kontzertuari begira. Talde ezagunen kantak eta propioak uztartuko dituzte. Zazpi bat abesti propio dituzte, eta Asier Olabarrietaren aspaldiko talde baten pare bat kanta ere jotzen dituzte. Taldearen indargune moduan Nere Gilen ahotsa nabarmendu dute gainerakoek. "Emakume abeslariak dituzten taldeak gustatzen zaizkigu, eta Nerearekin sekulako zorrea izan genuen", esan du Jimenezek. Bazekiten abesten zuela, baina pandemia garaian deskubritu zuten benetan Gil, Aitor Novarekin etxealdian grabatu zuen kanta baten bidez. "Abesti hura izugarria izan zen", esan du Olabarrietak. Orduan gonbidatu zuten Islabatekin kontzertua ematera, eta ikusi zuten zenbat gozatu zuen berak ere eszenatokian. Astro guztiak alineatu ziren, eta horrela hasi zen Bilet. Gilek berak ere eskerrak eman dizkie taldekideei proiektuaren parte izateko aukera emateagatik eta berarengan jarri duten konfiantzagatik.



Kultur eskaintza



Larrain-dantza herrikoia

Abuztuak 23, 12:15ean, Kalegoen plazan

Plazan, bikoteka eta biribilean dantzatzen da Larrain-dantza eta badira urte batzuk Elgoibarren dantza ikastaroa antolatu ohi duela herritar talde batek Lizarrako larrain-dantza ikasteko. Aurten ere, talde horretakoak eta nahi duen gainerako orok San Bartolome bezperaz izango du dantzatzeko aukera, Kalegoen plazan. Nork bere zapia eraman behar du etxetik.

Ellie Jensen

**Abuztuaren 23an, 22:00etan,
Kalegoen plazan**

Xabier Larrañaga Etxabe (gitarra eta ahotsa) eta Eneko Lersundi Perez (baxua) elgoibartarrek eta Eneko Bergaretxe Maguregi ermuarrak (bateria) sortu zuten taldea duela lau bat urte, eta iazko martxoan argitaratu zuten beren lehen albuma plataforma digitaletan: *Sormenaren kondena*. Rocka, bluesa eta funk erritmoak uztartzen dituzte, eta taldean hiru izanda ere, zuzenekoetan sekulako indarra dute. Iaz, En Tol Sarmientoren aurretik jo zuten eta aurten berriro itzuliko dira sanbartolomeetan Kalegoen plazara.



Nogen

**Abuztuaren 23an, 23:00etan,
Kalegoen plazan**

Donostiarrak dira eta bost lagun dira taldean. Folk pop musika egiten dute. 2017an grabatu zuten beren lehen lana, *Lys* (EP) eta urtebetera argitaratu zuten beren lehen diskoa, *Liv Til Døden*. Geroztik, beste bi disko eman dituzte argitarara: *Under Alt*, 2020an, eta *Aber Cirkel* iaz. Azkeneko diskoa aurkezten dabilta, askoren ustez Nogenen diskorik ausartena dena eta taldearen erregistro guztiak biltzen dituena. Kantu akustikoak eta folk eta indie estilokoak ditu, baina gauza ezberdinak ere badaude: soinu elektronikoa eta modernoagoak, baita punk eta rocka ere.





Marietak Zirkus

**Abuztuaren 24an, 19:00etan,
Maalako parkean**

Zirika Zirkus konpainiaren lana da *Marietak*. Izeba eta haren bi ilobaren arteko zirku konpainia dira eszenan. Zaindu beharraren zaindu beharraz, ilobek aurkezle lanetan jarri nahiko dute Maripantxi izeba, baina hark oraindik sasoiko dagoela erakutsiko die. Maitasuna eta elkartasuna non hasi eta bukatzen diren erakutsiko dute eta emakumeen ahalduz sakondu.

Herenegun

**Abuztuaren 24an, 23:00etan,
Kalegoen plazan**

Donostiako Antigua auzoko zazpi lagunek osatu zuten taldea 2015ean eta abesti alai eta doinu dantzagarriak jotzen dituzte zuzenekoan, ska, reggae eta rock erritmoak nahasiz. 2020an argitaratu zuten lehenengo diskoa, *Zer dakarren*, eta 2021ean Gasteizko Txosnetako banda lehiaketaren lehen edizioa irabazi zuten. *Iaz*, *Bi mundu* diskoa argitaratu zuten, zazpi kantuko lana.



Cafe Irlandes

**Abuztuaren 25ean,
jubilatuen bazkarian**

Hiru lagunek osatzen dute Cafe Irlandes berbena talde donostiarra, eta abesti klasikoak eta gaur egungo musika panoramako kantu berriak ere badaude beren kantu zerrendan.



Bide Batez

Abuztuaren 25ean, 21:00etan, Maalan

Erromeria taldea dira eta dozena bat urtetik gorako eskarmentua dute oholtzan. Euskal erromeria suspertzeko jaio zirela diote beren buruaz, eta abesti herrikoiak nahiz oraingo moda-modako abesti euskaldunak jotzen dituzte.

Artistas del gremio

**Abuztuaren 26an, 19:30ean,
Kalegoen plazatik**

Txaranga gisa sortu ziren, baina fanfarria edo brass band bat dira gaur. *Tú sí que vales* telebista saioan finalista izan ziren, eta behin baino gehiagotan jaso dute estatuko txaranga onenaren saria. Lau disko dituzte, eta hainbat soinu-banda ere sortu dituzte *Que se mueran los feos* filmarena kasu. Nazioarteko musikari ospetsuekin elkarlanean aritu dira, hala nola Amparanoia, Ixo Rai, Juan Abarca, Boikot, Manolo Kabezabolo, Paco Pil, Rupatrupa, Los Gandules edo Despistaos. Publikoarekin interakzioa bilatzen dute. Gabonetan ere Elgoibarren izan ziren



Deabru beltzak

**Abuztuaren 26an, 22:30ean,
Kalegoen plazatik**

Euskal Herriko hainbat antzerki taldetako aktoreek sortu zuten 1996an Deabru Beltzak kale antzerkia. *Les tambours de feu* lanarekin datoz Elgoibarrera. Zuzeneko musika, piroteknia eta efektu espezial handiekin osatutako ikuskizuna da. Aker da taldeko protagonista eta haren bueltan ibiliko dira gainerako perkusio joleak, esku bat danborrean eta bestea zirian dutela.





Kitziki

**Abuztuaren 30ean, 15:30ean,
Kalegoen plazan**

Elgoibarko, Azkoitiko eta Bergarako zazpi lagunek osatzen dute taldea: Maialen Arriola (perkusioa), Maddi Arrieta (biolina), Nahia Carrillo (gitarra), Olatz Makazaga (ahotsa) eta Alaitz Landa (ahotsa) elgoibartarrek, Enara Mujika bergararrak (teklatua) eta Itxaso Alberdi azkoitiarrak (baxua eta saxofoia), eta erromeria estiloko musika egiten dute. Euskal talde ezagunen abestien bertsioak jotzen dituzte. Azkoitin eman zuten estreinako kontzertua eta Elgoibarren martxoaren 16an jo zuten estreinakoz, Karakate Egunean. Geroztik hainbat lekutan aritu dira herrian bertan.

Oihan Vega

**Abuztuaren 30ean, 18:30ean,
Kalegoen plazan**

Telebistako aurkezle eta irrati esataria da Oihan Vega eta Belceblues taldeko bateria jolea ere bai. (Bergara, 1981). Baina musika jartzera dator Elgoibarrera, DJ gisa. ETBk eta Gaztea irratiak sustatutako *Diskofesta izeneko* ikuskizunarekin Euskal Herria alderik alde gurutzatu du, eta Elgoibarren ere izana da aurrez jaietan musika jartzen.



Agote DJa

**Abuztuaren 30a, 21:00etan,
Maalan**

Ibai Agote da DJ Agote, musika maite duen 19 urteko gazte elgoibartarra. Iban Urizar musikaria izan zuen irakasle DBHn eta haren klase baten piztu zitzaion musikarako interesa. Eguberrietako opari modura gurasoei mahai txiki bat eskatu zien, eta hardcore musika jartzen hasi zen. Gerora, technoa ere deskubritu zuen, eta orain Acid musikarekin tartekatzen du. Txalintxo, Salitre, Venecia edota Non bezalako aretoetan jo du aurten.





Akerbeltz

Abuztuaren 30a, 23:00etan, Maalan

Hamabost urte baino gehiagoko eskarmentua duen erronomia taldea da. Rock kutsuko erronomia gisa hasi ziren, Metallica, AC/DC, Queen, Guns&Roses eta Su Ta Gar moduko taldeen bertsioak egiten, baina laster hasi ziren beste estilo batzuetako kantak gehitzen. Egun, kanta euskaldunak jotzen dituzte bereziki, estilo askotarikoak, eta kantu mitikoez gain, azkenaldiko kantu ezagunak ere jotzen dituzte.

Puro Relajo

**Abuztuaren 31, 23:00etan,
Kalegoen plazan**

Rantxerak, korridoak, balsak eta latinoamerikar musika dira Puro Relajo talde nafarraren espezialitatea, baina betiko kantu mexikarrak abesteaz gain, euskal klasikoetako askoren bertsioak ere jotzen dituzte. Publikoaren eskaria aintzat hartu eta 2016an *Canta al euskara* lana argitaratu zuten, euskal kantuekin. Kalegoen plaza goraino betetzea zer den ondotox dakien taldea da.



Prebentzio guneak

Substantzien inguruko informazio-mahaia, testing guneak eta Beldur Barik guneak ere jarriko dituzte aurten sanbartolomeetan. Hona hemen, egunez egun, programa horien inguruko informazioa.

Abuztuak 23, barikua

Botilatzarra prebenitzeko programa ibiltaria, eta 00:00etatik 03:00ra, substantzien inguruko informazio-mahaia eta testing gunea, Maalako zubian.

Abuztuak 24, zapatua

21:30etik 00:30era, sexu indarkeriaren prebentziorako Beldur Barik gunea, Maalako parkean.

Abuztuak 30, barikua

21:30etik 00:30era, sexu indarkeriaren prebentziorako Beldur Barik gunea, Maalako parkean.

Abuztuak 31, zapatua

21:30etik 00:30era Beldur Barik gunea, Maalako parkean, eta 22:30etatik 02:00etara, alkoholimetria postua, San Lazaro egoitzaren kanpoaldean. Gauerditik 03:00etara, berriz, substantzien inguruko informazio-mahaia eta testing gunea, Maalako zubian.

Gaeko taxi zerbitzua, doan: abuztuaren 23an, 24an, 26an, 30ean eta 31n.

Ordutegia: 01:00 - 07:00, Txarridunako errotodan. Udallerri barruko ibilbideak egingo ditu.



San Bartolome jaiak ederrak dira,
betaurreko egokiekin begiratzea besterik ez dago.

Ondo pasa jaixetan!



 lizardi

INGENIERÍA
DISEÑO
CONTROL

Ondo pasa jaixetan!





BELAUSTEGI

— BASERRIA —

*Denborak atsedena hartu eta
zentzumenak esnatu egiten
diren lekua*

ELGOIBAR

SAN BARTOLOME

JAIK 2024



Zapia, bihotza bezain gorria

Hamabost lan aurkeztu dituzte 2024ko San Bartolome jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketara, eta Sara Basurto Albizu elgoibartarrak aurkeztutakoa aukeratu dute. *Jaietako zapia, bihotza bezala, gorria da* izenburua zuen kartela aurkeztu zuen Sara Basurtok lehiaketara eta horixe da epaimahaia aukeratu duena. 800 euroko saria jasoko du kartel lehiaketako irabazleak.

Honakoek osatu dute epaimahaia: Elgoibarko alkate Maialen Gurrutzagak, Kultura Batzordeko presidente Andrea Arriolak, Ongarri argazki taldeko kide Jesus Mari Sarasuak, Gemma Monreal eta Emilia Nogales margolariek, eta Kokoe komiki taldeko kide izandako Iñaki Raigosok. Partehartzaile guztiei eskerrak eman dizkiete Udaletik.

Abuztuak **21**, eguaztena

18:30 Futbol txupinazoa: Haundi gizonetzkoak. C.D. Elgoibarrek antolatuta, Mintxetan.

Abuztuak **23**, barikua

San Bartolome bezpera

09:00 Txirrindulari lasterketa: Etzaniz Memoriala. Kalegoen plazatik. Helmuga: Pedro Migel Urruzuno kalean, 12:00etan. Sari banaketa, 12:30ean, Kalegoen plazan. Gure Bide elkarteak antolatuta.

10:00 Bisita gidatua Kalegoengo Done Bartolome parrokiara. Pello Arrieta eta Javier Elorza historialariek. Ele bitan.

10:30 Jaien hasiera, San Lazaro egoitzan eta Eguneko Zentroan. Adinekoei zapia jarriko diete.

11:30 Iaz jaiotako umeei ongi-etorria. Aita Agirre kulturgunean.

12:15 Larrain dantza herrikoa. Kalegoen plazan.



13:00 Txupinazoa eta kanpai-jotzea. Aurten, Lanbide Heziketako ordezkariak botako dute, Elgoibarko Lanbide Heziketaren sorreraren 125. urteurrena dela-eta.



Ondo pasa jaietan!

Estetika eta ileapaindegia

Hiltzordua hartzeko: **646 563 706**

Urazandi 9, behea - Elgoibar / Lersundi 1-3 - Deba



SEGUR-ARNO
ASEGURUAK
PEDRO BASURCO - AMAIA PAGOAGA

Ondo pasa jaietan!

Deba Kalea 2, behea - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
segurarno@segurarno.com - www.segurarno.com

943 74 80 13



EXPRESS ESKAINTZAK!

COMBI BALAY
3KFE763MI

A T G **E**

779 €

Ondo pasa jaietan!

- Ez Frost
- 203 zm-ko altuera
- 368 Litro
- ExtraCold eta ExtraFresh kaxoiak
- Hatz marken kontrako altzairu herdoilgaitza, brillorik gabekoa.

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

Segidan, Mauxitxa Txarangaren kalejira.

16:00-19:30 Giza futbolina. Kalegoen plazan. Euria bada, Sigman.

16:00-20:00 Umeentzako jolasak. Bolatokiko parkean. Euria bada, Sigman.

16:00-20:00 Haur eta nerabeentzako parkea, Aita Agirre plazan. Euria bada, Sigman.

16:30 Sorpresa. Jubilatuen Biltokian.

17:30 Erraldoi, buruhandi eta zezenzikleten kalejira, Elgoibarko, Guardiako eta Iruñeko dultzaineroekin.



18:00 Eskubaloia: Bera Bera - Zuazo. Sanlok antolatuta, Olaizaga kiroldegian.

19:00 Mauxitxa Txarangaren kalejira, danborradarekin batera. Kalebarren plazatik.

20:00 Ignazio Bereziartuaren salbea. Parrokiako abesbatzak kantatua, San Bartolome parrokiaren. Udalbatza parrokiara joango da, Udal Txistulari Taldeak lagunduta.

20:00 Eskubaloia: Bidasoa - Ciudad de Logroño. Sanlok antolatuta, Olaizaga kiroldegian.

22:00 Kontzertua: Ellie Jensen. Kalegoen plazan.

Segidan, Kontzertua: Nogen, Kalegoen plazan.



**ASESORIA
GOAR**

**KONTABILITATEA
AHOLKULARITZA FISKALA
ASESORIA LABORALA**

San Bartolome, 2 behea - Elgoibar Tel: 943 742 674 / 943 740 234
asesoria@asesoriagoar.com Faxa: 943 742 129



**Osasun
gida**



RPS 183/12
Uzuri
optika audio
Elgoibar
943 740 359
Deba
943 192 192



NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola
GIZA EUKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA
RPS 203/16
Toribio Etxebarria, 22
Eibar
677 551 850



fisio&más
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea
Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 953 628
www.fisio-mas.com
RPS 177/19



**leku
edero**
hortz klinika
RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Enparantza, 5 - Elgoibar
943 530 053



federópticos
ikus
RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734



RPS 271/12
ainhoa
Fisioterapia
Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar
943 531 953
669 565 745



aldaz
hortz klinikak
RPS233/13
943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar



Etxebizitzak 150.000€-tik.
Entrega-epea: 2025ko urtarrila.



30 urte
baino gehiago zurekin.

Ondo pasa jaietan!

San Frantzisko 51, behea - Elgoibar

943 744 467

INMOBILIARIAGABILONDO.ES

30 SAN BARTOLOME JAIAK 

Abuztuak **24**, zapatua

San Bartolome Eguna

09:00 Iruñeko eta Guardiako dultzaineroen diana.

09:45 Udal Txistulari taldearen diana.



10:00 Udal Musika Bandaren kalejira.

10:45 Herriko zaindariaren prozesioa. Udalbatzak parte hartuko du, Udal Musika Bandarekin eta Udal Txistulari Taldearekin batera.

11:00 Meza Nagusia. San Bartolome parrokian. Parrokiako abesbatzak, Udal Txistulari Taldeak eta Haritz EDT-k hartuko dute parte.

Jarraian, soka-dantza. Haritz EDT eta Udal Txistulari taldearen eskutik.



Ondoren, Udal Musika Bandaren kontzertua, San Bartolome parrokian. Zuzendaria: Juan Manuel Saez Etxabe.

- *Pasodoble para una madre* (Eduardo Moreno)
- *Abba in Broadway* (arr. M. Brown)
- *Jaialdia* (arr. Iñaki Urkizu)
- *Red rock mountain* (R. Galante)
- *Garijo* (Txomin Mujika)
- *El destrozo* (Txomin Mujika)

16:00-20:00 Haur eta nerabeentzako parkea, Aita Agirre plazan. Euria egingo balu, Sigman.

16:00-20:00 Puzgarriak. Kalegoen plazan.

16:00-20:00 Umeentzako jolasak. Bolatokiko parkean. Euria egingo balu, Sigman.

16:30-17:30 Umeen eta Nerabeen egunetako kamiseten banaketa. Bolatokiko parkean.

17:30-19:00 Erraldoi, buruhandi eta zezenzikleten kalejira, Elgoibarko, Guardiako eta Iruñeko dultzaineroekin batera. Lekueder buruhandirik gabeko gunea izendatu dute.



18:00 Profesional mailako pilota partidak (Aspe). Ikastolako frontoian.

19:00 Kale antzerkia: *Marietak zirkus*. Zirika Zirkus taldearen eskutik, Maalan.

22:00 Brilet taldearen kontzertua. Kalegoen plazan.

Jarraian, Herenegun taldearen kontzertua. Kalegoen plazan.

PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
 cordonvilarchao@telefonica.net
 San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 986 162

HAIR'S Ileapaindegia
 San Bartolome, 6 behea
943 531 279

ASTEARTETIK OSTIRALERA:
 09:00 - 12:30
 15:00 - 19:00

LARUNBATETAN:
 09:00 - 14:00

ASTEARTEETAN
JUBILATUEN EGUNA

Ondo pasa jaietan!
 Oraztu Moztu
13,50€ 13,50€
 Garbitu, moztu eta oraztu
27€

Merkealdia!

LAGUNAK
 colchonería textil hogar

OHE-IZARETAN
ESKAINITZA ZABALA

%50 poliesterra eta
%50 kotoia duten ohe-izarak 18€tik aurrera
 (neurri guztiak: 80 zm-tik 2 m-ra)
%100 Kotoia duten ohe-izarak 25 €tik aurrera

Ez galdu aukera paregabe hau!
 Bisita gaitzazu!

Ondo pasa jaietan!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar
 943 744 457 - 685 756 978
 www.textillagunak.com

Abuztuak **25**, domeka

Jubilatuen Eguna

07:45 Diana, herriko dultzaineroekin.

Jarraian, sokamuturra, Lopene ganadutegiko zezenekin. King-Kong-en hasita.

11:30 Hamaiketakoa, umeek eta jubilatuek banatuta. Kalegoen plazan.

12:00 Eusko Label hegaluze parrillada. Atabal Danborrada Elkarteak antolatuta, Kalebarren plazan.

12:00 Latuna Bando txarangaren kalejira.

12:30 Jubilatuentzako meza. San Bartolome parrokian.

Meza ostean, kalejiran joango dira kiroldegira.

14:30 Jubilatuen bazkaria. Olaizaga kiroldegian. Cafe Irlandes musika taldeak girotuko du.



19:00 Dantza Solteko Txapelketa. Haritz EDT-k antolatuta, Udal Txistulari Taldearen eta trikitilarien laguntzarekin.

20:00 Afal aurreko mokadua. Jubilatuen Biltokian.

21:00 erromeria, Bide Batez taldearekin. Maalako parkean.



IRIONDO KIROLAK

MENDIRAKO eta KALERAKO MODA - ELGOIBAR
Eskerrik asko, bezero!



- IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- MULTIKOPISTAK
- FOTOKOPIAGAILUAK
- ERLOJU INDUSTRIALAK
- MARRAZKETA MATERIALA
- INFORMATIKA
- FAXA

MEKANOSA
Errosario, 27-Elgoibar
943 740 284



urkotronik

URKOTRONIK VENDING S.L. **943 203 112**
urkotronik@urkotronik.com




GORRI HERRI JAIAK!

ehbildu

Umeen Eguna

11:30 Umeek eta jubilatuek hamaiketako banatuko dute, Kalegoen plazan.

11:30 - 14:00 / 16:00 - 18:30 Haur eta nerabeentzako parkea. Aita Agirre plazan. Euria egingo balu, Sigman.

12:00 - 14:30 Umeentzako jolasgunea. 0-5 urte bitartekoentzat. Bolatokiko parkean.

13:00 Bazkarira datozen umeen topaketa.

14:00 Haurrentzako herri bazkaria. LH1etik aurrerako umeentzat. Elizako arkupeetan. Bakoiitzak bere ogitartekoa eraman beharko du. Freskagarriak eta postrea bertan banatuko dizkiete.



15:30 Aulki-joko erraldoia. Kalegoen plazan.

Jarraian, apar festa. Kalegoen plazan. Igerilekuko betaurrekoak, uretako oinetakoak, bustitzeko arropa eta toalla eraman behar dira.

18:30 Erraldoi, buruhandi eta zezenzikletak, Mauxitxa txarangarekin. Maalako parketik.

21:00 Erromeria: Bide Batez taldearekin. Maalako parkean.

ESARRI AUTOAK ZERBITZUA
MARKA GUZTIAK 
943 741 480
Aitor: 606 975 730
Anton: 680 356 573
Faxa: 943 031 576 
Olaso, 17 - Elgoibar

 Revert Eibarbus
grupoJonAnder
www.grupojonander.com 
jonander@jonander.com - eibarbus@eibarbus.com
943 201 733

ARAMBURU
BITXIDENDA 
Ondo pasa jaietan!
San Frantzisko, 26 - Tel./faxa: 943 742 535 - Elgoibar

estetikaalire
Upaiz zaharra, 1 behea-Elgoibar - **943 531 636**
Erreserbatu zure hitzordua gure App berrian
ALIRE estetika
KLIK bakar batera!
Nahi duzun lekuan eta nahi duzunean!
Ezagutu gure azken zerbitzuak eta sustapenak!

Abuztuaren 12tik 20ra OPORRAK
 #alireestetika  @alireestetika

AHOLKULARITZA

BIKAIN

ASESORIA

943 744 557
bikain@bikainasesoria.com

- Zerga-aholkularitza
- Lan-aholkularitza
- Kontabilitate aholkularitza

Antonio Arrillaga, 4 behe
20780 ELGOIBAR

0 | **OLAIA MARTINEZ**
ESTETIKA ZENTROA

Trenbide kalea, 21 behe, ezk.
Elgoibar
943 242 805

Abuztuaren 10etik irailaren 1era itxita.
Abuztuko ordutegia: Astelehenak 10:00-18:00
Asteartetik ostiralera 09:30-18:00

UDAKO PROMOZIOAK DAUZKAGUI!  
Aprobetxatu Itzazu.

Masaje zentrua
Sabia Garcia

Trenbide kalea, 19 - Elgoibar - 943 531 221
Ondo pasa jaietan!

Ondo pasa
jaiak !!!

KARKIZANO

Abuztuak **26**, astelehena

Txiki Eguna

07:30 Diana, Mauxitxa txaranga eta herriko dultzaineroekin.

Jarraian, sokamuturra, Rusoren zezenekin. Maalako parkean hasiko da.

Ondoren, salda eta txorizoa banatuko dute herriko elkarteek: Karakate, Ego-Toki, Zubi Ondo, Herri Gain, Goiko Errota, Gure Bide eta Batzokiak.

12:00-14:00 eta 16:00-19:00 Uretako puzgarriak, Aita Agirren. Igerilekuko betaurrekoak, uretako oinetakoak, bustitzeko arropa eta toalla eraman behar dira.

12:30 Mauxitxa txarangaren kalejira.

13:00-16:00 Fotokola: *Jaietan ere, indarkeria matxistari, ez!*. Kalebarren plazan.

17:30 Kiliklon txorotxaranga, haurrentzat. Bolatokiko parkean.

18:00 Profesional mailako pilota jaialdia (Baiko). Ikastolako frontoian.

19:30 Artistas del gremio. Kalegoen plazan hasita.

22:30 Deabru Beltzak, su danborrak. Kalegoen plazan hasita.



Abuztuak **28**, eguaztena

11:30 Erakusketa: Sanlo EKTren 25. urteurreneko argazki erakusketa. Irailaren 1era arte, Kultur Etxeko erakusketa gelan. Astelehenetik domekara, 11:30 - 13:30 eta 18:00 - 20:00.

Abuztuak 29, eguena

18:30 Futbol txupinazoa: Haundi emakumezkoak. C.D. Elgoibarrek antolatuta, Mintxetan.



Abuztuak 30, barikua

Nerabeen eta Gazteen Eguna

07:45 Diana, herriko dultzaineroekin.

Jarraian, sokamuturra, Albara ganadutegiko zezenekin. Maalako parkean hasiko da.

Ondoren, salda eta txorizoa banatuko dute herriko elkarteek: Karakate, Ego-Toki, Zubi Ondo, Herri Gain, Goiko Errota, Gure Bide eta Batzokiak.

12:00 Goitibehera jaisiera Azkuen. Izena emateko: *elgoibar.eus* edo egunean bertan, irteeran.

Segidan, drift trike erakustaldia. Izena emateko: *elgoibar.eus* atarian, abuztuaren 15erako.

14:00 Nerabeen bazkaria. Elizpean.

15:30 Erromeria Kitziki taldearekin. Kalegoen plazan.

Segidan, Oihan Vegaren ikuskizuna. Kalegoen plazan.

19:00 Herri kirolen taldekako triatloia. Aita Agirre plazan. Euria egingo balu, Ikastolan.

21:00 Kontzertua: DJ Agote. Maalan.

Jarraian, kontzertua: Akerbeltz. Maalako parkean.



INDUSTRY LANGUAGE SERVICES **ils** **IMH** CAMPUS

**INGELESA
FRANTSESA
ALEMANA**

**Azken plazak!
Matrikula zaitetz!**

**IRAILTIK HASITA
2024-2025 KURTSOKO IKASTAROAK**

Maila guztiak.
Titulu ofizialak.
Esperientzia duten jatorrizko irakasleak.
Ikastaroak atzerrian.
Multimedia gela.
Haurrak eta gazteak 4 urtetik aurrera.

**ENPRESA ITZULPEN ETA
INTERPRETAZIO ZERBITZUAK**

 www.ils.es  943 744040

 688 679356  ils@imh.eus

Abuztuak **31**, zapatua

Baserritarren Eguna

09:30 Ganadu lehiaketan parte hartuko duten ganaduzaleei harrera. Haritz EDT-k eta Udal Txistulari Taldeak egingo diete, Aita Agirre plazan.



Jarraian, Baltzola eta lagunak trikitalarien kalejira.

10:30 Euskadiko Limousin Ganadu Txapelketa. Sigmako probalekuan. Sari banaketa irailaren 1ean, 13:00etan, Sigmako probalekuan.

11:00 Sagardo txapelketa eta dastatzea. Sallobente elkarteak antolatuta, Kalegoen plazan.



*Elgoibarren
bizi. erosi
herriak irabazi*



TXARTELAREKIN ORDAINDUTA

10€-KO HOBARI SARIAK

LORTU AHALKO DITUZU.

3000€ ZOZKATUKO DITUGU

URTEA AMAITU BITARTEAN.

Ondo pasa jaietan!

11:00 Gazta txapelketa eta salmenta.
Kalamua elkarteak antolatuta, elizpean.

13:00 Sagardo lehiaketako sari banaketa.
Kalegoen plazan.

13:00 Bertsolariak: Uxue Alberdi, Miren Amuriza eta German Meabebasterretxea.
Kalegoen plazan.

14:00 Gazta Txapelketako sari banaketa.
Kalegoen plazan.

17:00 Baltzola eta lagunak trikitilarien
kalejira.



18:00 Mintxeta memoriale:
Sanbartolomeetako harri-jasotze txapelketa, Kalegoen plazan. Euria egingo balu, Ikastolan.

18:30 Patxangoi elektrotzaranga.
Maalako parkean. 19:30etik aurrera, kalez kale.



23:00 Kontzertua: Puro Relajo musika taldea. Kalegoen plazan.

Segidan, Mauxitxa txarangaren kalejira.



Maria Urizar
ilepoindegia • Peluqueria
943 74 44 89
San bartolome kalea, 15
20870 Elgoibar


Ondo pasa jaietan!



Ondo pasa jaietan!
Gogoratu abuztuaren 2ra arte
lanean gaudela eta
abuztuaren 26tik aurrera
zure autoa kurtsu berrirako
prest uzteko
txanda hartu dezakezula!

Olaso kalea, 15 - Elgoibar

 660 912 542  www.elgokar.com



 [instagram.com/elgokar.autogarbiketak](https://www.instagram.com/elgokar.autogarbiketak)

Art. 26
GYS SPORT CASA ELGOIBAR
ASTIGARRAGA
Errosario, 18
943 743 268

**Abuztuan, goizez, zabalik,
09:00etatik 13:00etara**

Ondo pasa jaietan!



Errosario, 21, behea
943 744 386

GREMIONEN GIDA



PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

LEIHOAK

ODRI
ATEAK ETA LEIHOAK

Aluminio eta PVC aroztegia

Mota guztietako leihoak; salmenta eta konponketak
Ateak, leihoak, pertsianak, barandilak,
eltxo-sareak eta toloak jartzen ditugu.

662 234 609

odrileihoak@gmail.com
Sagar Erreka Kalea 2, 20890 SOBALUDE

AROZTEGIA

BIENA, S.L.
AROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA

Pedro Migel Urumano, 8
943 740 512
fax: 943 743 565
bienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - ELGOIBAR
taller@pagoagasa.com
943 740 279

IZURRIEN KONTRAKO TRATAMENDUAK

PLAGANATURA

Cuidando la Salud Ambiental

618 198 760

ivan@plaganatura.eus
www.plaganatura.eus

AROZTEGIA

iraolagoitia
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutze-gain industrialdea, 9
20850 Mendara
943 756 112
636 497 485

www.iraolagoitia.com

ITURGINTZA

SANTANA

Igor Santana
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea, 17, behea
Elgoibar

943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

KONPONKETAK

LODOSO KONPONKETAK

- ✓ Leihoak
- ✓ Pertsianak
- ✓ Arozzeria metalikoa
- ✓ PVC arozzeria
- ✓ Eltxo-sareak

Errosario kalea, 13, behea
lodosokonponketak@gmail.com

943 247 659
617 585 330

AROZTEGIA

IMAR
AROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimar@hotmail.com

@carpinteria_imar

Gidan agertzearen onurak!

23,82€ hilean
23,82 Eren truke, hilero, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu BARREN astekarlan.

12 aldiz urtean
BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleho ikusiena.

4.700 ale astero
4.700 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron DOAN.

4.700 ale astero
Eman bultzada eskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.

943 743 704
688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Alta Agirre Kulturgunea, 3. 3. ezk
20870 ELGOIBAR

Eskerrik asko!

Uztailaren 28an itxi genuen gure jatetxeko atea,
eta zuek guztiokin kontu bat daukagu kitatzeko: eskerrak ematea.

Hainbeste denboran bisitatu gaituzuenoi, familian etorri eta momentu
bereziak ospatu dituzuen guztioi,
mila esker zuen historiaren parte egin gaituzuelako;
mokadutxoa egitera etorri zareten guztioi ere eskerrik
asko gure egunak atseginagoak egiteagatik;
gure ingurua barrez eta pozez betetzen zenuten guztioi...

Eta, nola ez, gure proiektu hau aurrera eramaten
lagundu diguten langile eta senide guztiei, eskerrik asko.
Zein garrantzitsuak izan zareten denok!

Aitona Manuel eta amona Joxepak duela 70 urte ateak ireki zituztenetik,
lan nekeza egin dugu; jatetxeari eskainitako zazpi hamarkada izan dira.
Argi daukagu jenderaren falta somatuko dugula
baina atseden hartzeko eta bizitza beste erritmo batean bizitzeko unea iritsi zaigu!

Mila esker guztioi!
Jesus Mari Arrillaga, Mila Laka eta Maria Rosa Arrillaga.



ASKE BIZI JAIK



Jaietan festa girorako zerbait ezinbestekoa bada, hori musika da. Nekez egongo da festarik musikarik gabe, eta Gune Askean ere badakite hori. Musika mota desberdinak izango dira, bertsoetatik hasi eta DJak arte, eta bakoitzak bere gustukoa aurkitzeko aukera izango du. Orriotan bildu ditugu Maalako Gune Askean egunez egun izango diren musika saioak.

Bertso poteoa Abuztuak 22, 19:00

Gaztetxea inauguratu zuteneko eguna ospatzen dute abuztuaren 22an Gune Askean. Erreka garbitzeko eguna izan ohi dute: goizean goiz sartuko dira Deba ibaian, eta ahal duten zikinkeria gehiena aterako dute. Ondoren bazkaldu eta iluntzean bertso-poteoa, Joanes Illarregi eta Julio Soto bertsolariekin.



Iñaki Labaka

Abuztuak 23, bazkalostean

San Bartolome Bezpera Egunean presoen eskubideen aldeko bazkaria egiten dute Gune Askean, eta bazkalostea girotzeko Iñaki Labaka kantautore lezotarra gonbidatu dute aurten. *Itzultzeko garaiak* izeneko diskoko kantak eta beste hainbat kantatuko ditu.



RTZ Abuztuak 23, 22:00

RTZ Kolektiboa 2021ean Baionako Zizpa gaztetxean sortu zen rap taldea da. Hainbat rap tailer animatu ostean, *Konkista* izeneko lehen EPa kaleratu zuten. Proiektu honetarako, lau raplari bateratu dira: Pétri, OPH, Frel Asiat eta TLM.



La Basu Abuztuak 23, 23:30

Elena Caballero da La Basu rap-kantaria. 1990eko hamarkadan hasi zen rapeatzen, eta raparen munduan Euskal Herrian zegoen emakume bakarretako bat izan zen garai hartan. 1999an emakumezkoen talde bat eratu zuen, Jungla Urbana, eta 2001ean estreinako maketa kaleratu zuen, baina osasun arazoengatik 2002an eskenatokiak utzi behar izan zituen. 2013an itzuli zen *Remixes* maxiarekin eta 2015ean *Aire es vida* diska plazaratu zuen. 2016an euskara hutsezko EPa atera zuen, *Izotz erregina*.



Arrixku Abuztuak 24, 22:00

Andoaingo taldea da Arrixku. Loatzo musika eskolatik ateratako taldea da. June, Egoitz, Xabat eta Joxek osatzen dute, denak bailarakoak. Rock estiloko musika egiten dute, eta bertsoak ere kantatzen dituzte.



B.O.T.H Abuztuak 24, 23:30

B.O.T.H. 2020ko pandemian sortutako hardcore punk musika jorratzen duen talde bizkaitarra da. Garazi (ahotsak), Iñigo (gitarra), Imanol (baxua) eta Beñatek (bateria) osatzen dute taldea. Letra kritikoak dituzte oinarrian eta musika zorrotza egiten dute.



Itzal Abuztuak 26, 20:00

Oiartzundik dator Itzal erromeria taldea. Txiki Eguneko arratsaldean dantzan jarriko dute Maalako parkea. Euskal giroan ezagunak diren abestiak joko dituzte, eta ez da euskal dantzarik faltako.



Ñozz elektrotxaranga

Abuztuak 30, 18:00

Kale giroa sortzeko formula berria asmatu dute elektrotxarangek eta azken urteetan han eta hemen sortu dira elektrotxaranga taldeak. Deban sortu dute Ñozz taldea. Iazko santanetan Mendaron izan ziren, eta aurten Elgoibarren izango dira, Maalako jai batzordeak gonbidatuta. Gazteen Eguneko arratsaldea girotuko dute kalez kale, hainbat talde ezagunen abestiak joz.



LA BASU

Kantaria

✍️ Ainhoa Andonegi

Elena Caballero da La Basu rap kantaria (Etxebarri, 1983). Umetatik gustatzen zaio idaztea eta errimekin jolastea, eta halako batean ohartu zen bere hitzei erritmoa jarrita rap abestiak sortzen zirela. Ia jolas moduan hasi zuen raplari ibilbidea, eta gaur egun plazak betetzen ditu. Kolonbian zehar egingo du bira uda honetan, eta sanbartolomeetan Maalako Gune Askean kantatuko du. Abuztuaren 23ko rap jaialdian hartuko du parte, 22:00etatik aurrera.

“Raperoak kalearen oihartzuna gara”

Elena Caballero 'La Basu'. Aurkeztuko diguzu zure burua?

Elena Caballero naiz, Etxebarrikoa, baina rap munduan La Basu ezizenez ezagutzen naute. 29 urte daramatzat rapa egiten, eta urte askoan emakume bakarra izan naiz Euskal Herrian. Nire lekua egitea lortu dut eta rapa da nire bizimodua.

Nondik dator La Basu izena?

Orain dela urte pila bat kontzertu bat ikustera joan nintzen Bilbora. Txikia naizenez, ez nuen ondo ikusten eta zakarrontzi baten gainera igo nintzen. Estructura metalikoa zeukan, tapa berde batekin, eta halako batean tapa hautsi egin zen. Zakarrontzi barrura erori nintzen, eta *basurera* deika hasi zitzaidan jendea. Ez da oso istorio polita, baina benetakoa da.

Nola iritsi zinen rap mundura?

Gaztetan asko idazten nuen: hitzak, olerkiak... Nire burua oso arin doa, eta buru barnean neukana askatzeko ondo etortzen zitzaidan idaztea. Baina lotsa ematen zidan idazten nuena erakustek, eta armairuan gordetzen nituen koadernoak. Uda Burgosko



herri batean pasatzen nuen, eta graffitiak egiten zituen mutil bat ezagutu nuen. Cassette bat laga zidan, rap abestiekin. Ingelese zegoen eta ez nuen ezer ulertzen, baina konturatu nintzen nik idatzitakoari doinu hori jarrita rap abestiak nituela. 12 bat urte nituen, eta hitzekin jolasten hasi nintzen rapeatzen. Askok gustatu zitzaidan, konturatu nintzelako indar handia zeukala abesten zuten horrek.

Hasieran bakarrenetarikoa emakumea zinela esan duzu.

Rap eta Hip Hop mundua gizonezkoena da oraindik, baina emakumezkoak ere existitzen gara, rapeatzen dugu eta hemen gaude. Gaztea nintzenean gizonezko bat gehiago

nintzen. Beraiek bezala janzten nintzen, haiek bezala mugitzen nintzen... Arraro sentitzen nintzen haien artean. Adinarekin gauza asko ulertu ditut, eta orain askeago sentitzen naiz. Emakume gehiago gara, eta badaukagu sare bat antolatuta mundu hontara iristen diren emakumeei babesa emateko. Borrokalaria naiz, borroka egitea tokatu zaidalako. Ez da erraza izan hona iristea, gauza asko justifikatu behar izan ditut eta sarri entzun izan dut beste hori: 'Emakumea izateko ez du txarto egiten'. Gizonezkoei ez zaie horrelakorik esaten, eta askotan defendatu behar izan dut defenda ezina, eta horrek gogortu egin nau.

Gaztelaraz abesten hasi zinen, eta gaur ia dena euskaraz rapeatzen duzu. Zergatik hartu zenuen erabaki hori?

Etxebarrin ez da euskaraz hitz egiten, nire gurasoek ez dakite euskaraz eta ni ere 15 urtez egon nintzen euskaraz hitz egin gabe. Rapeatzen hasi nintzenean ez zen inoren buruan sartzen euskaraz rapeatu zitekeenik, eta horregatik hasierako diskoak gaztelaniaz argitaratu nituen. Baina egun baten pentsatu nuen banekiela euskaraz eta munduari demostratu behar niola posible zela euskaraz rapeatea. Niretzako sekulako erronka izan zen, eta gaur egun ere oraindik bada, jarraitzen dudalako gaztelaniaz pentsatzen eta askoz hiztegi zabalagoa daukadalako gainera. Euskaldun peto-petoa ez naiz izango, hankasartzeak egiten ditut, baina orain nire hizkuntza da eta gustatzen zait euskaraz rapeatea. Jendeak esaten dit euskaraz ez duela ulertzen eta gaztelaniaz egiteko, baina esaten diet ingelesez edo frantsesez ere entzutzen dutela rapa ezer ulertu gabe. Niretzako garrantzitsua da gure hizkuntza zabaltzea. Kolonbian ibiliko naiz uda honetan eta euskaraz rapeatuko dut. Orain euskaraz bizi naiz.

Zeri abesten diozu?

Emakumeari, euskarari... nire bizitzan gertatzen zaidanari buruz kantatzen dut. Asmatu ahal nituen istorio batzuk, kanta dezaket pistola bat daukadala eta kartzelan egon naizela, baina ez da egia. Nire bizitza bestelakoa da. Asko hitz egiten dut askatasunari buruz eta emakume izateari buruz. Rapa nire borroka da.

Nolako harrera dauka rapak Euskal Herrian?

Euskal Herrian rock eta punk musikak gogor egon dira beti, baina raperoak beti izan gara arraroak. Medioetan ere barregarri utzi dute gure mundua, baina raperoak kalearen oihartzuna gara eta paper garrantzitsua jokatzeko dugu. Talde berriak sortu dira, baina oraindik euskal rapa ez da asko entzuten.

Zer eskainiko diguzu Maalako Gune Askean?

Aspaldi ez dut Elgoibarren jo, eta ilusio handia egin zidan hango deia jasotzeak. Ikusi nahi ditut emakumeak dantzari eta aske gozatzeko. Horretara joango naiz, askatasun osoz abestera eta gozatzera.

EGITARAUA

Abuztuak 22, eguna

09:00 Erreka garbiketa.

19:00 Bertso poteoa, Julio Soto eta Joanes Illarregirekin.

Abuztuak 23, barikua

15:00 Presoen eskubideen aldeko herri bazkaria. Maalako parkean.

Ondoren, Labakarekin kantaldia.

22:00 Kontzertuak: RTZ eta La Basu.

Abuztuak 24, zapatua

22:00 Kontzertuak Maalan: Arrixku eta Both taldeekin.

Abuztuak 26, astelehena

20:00 Itzal taldearekin erromeria.

Abuztuak 30, barikua

15:00 Bazkaria, Sigmako aparkalekuan.

18:00 Ñozz elektrotzaranga eta jolas-poteoa.

00:00 Jolasak, Maalan.

Abuztuak 31, zapatua

22:00 Kontzertua, Maalan: Hauek.

Segidan, DJ saioa.



MAALA, FOLKLOREEN TOPAGUNE

✍️ 🇪🇸 Asier Orbea

Brasilgo, Kazakhastango eta Euskal Herriko musiken, dantzen eta kulturen topagune izan da Maalako parkea, berriro ere. Brasilgo Bacnare dantza taldeak herrialdeko zaharrenetarikoa den Recife hiriko tradizioak irudikatu zituen dantzen bidez, eta agerian laga zuten sormena eta kultura-aniztasuna direla Recife biztanleen nortasun-ezaugarri nagusiak. Kazakhastandik etorri zen Elgoibarko 37. Folklore Jaialdiko bigarren talde gonbidatua, Naz Folklore Konpainia Nazionala. Bere folkloreaken baitan milaka urtetako giza tradizio eta balioekin harmonian dauden kantu eta musikak erakutsi zituzten Maalako eszenatokian. Haritzekoek Guardiako eta Lapurdiko dantzak dantzatu zituzten aurtengoan. Argazki gehiago: barren.eus





Festa giroa nagusi Urazandin

Urazandiko jaiak ospatu zituzten uztailaren 13ko asteburuan, eta ume zein helduek gogotik gozatu zuten. Barikuan hasi eta domekara bitartean ez zuten atsedunik izan, eta denetariko ekitaldiak izan zituzten. Zapatuko herri bazkarian 250 bat lagun batu ziren, eta domekan umez bete zen festa gunea. Haur parkea eta apar festa koloretsua egin zituzten. Errifaren zozketa ere egin zuten eta hauek izan ziren zenbaki saridunak: 1. saria: 2755 (Ordezkoa: 0358), eta 2. saria 2283 (Ordezkoa: 1137). Argazki guztiak: barren.eus





MURUA GOZOTEGIA
KALITATEKO GOSARIA!

☎ 943 73 22 39

DOMINA
MERCEDES



IL ZAPORE
ZURE PIZZAK!

☎ 943 28 25 37



GOURMET DENDA
PRIMERAKO PRODUKTUAK!

☎ 943 74 26 52




**SAN BARTOLOME JAIETAKO
IRUDIAK EGUNERO**

www.barren.eus



Dislexia bistaritzen lagundu du garagardo azokak

Dislexia izan da aurten Mendaroko garagardo azokako gaia, eta dislexiadunen familien bidelagun izateko sortu zuten Dislegi Debabarrena elkartearentzat izango da batu duten dirua. Dislexia jatorri neurobiologikoko nahasmendua da, irakurketarekin eta idazketarekin lotutako hizkuntza-trebetasunei eragiten diena, eta asko dago egiteko kolektibo horrentzako aukera berdintasuna lortzeko; gizartea kontzientziatzea da erronketako bat, eta horretarako ere balio izan du gainerakoan ohiko osagaiak izan dituen Mendaroko garagardo azokak: barren.eus



www.elgoibarikastola.eus

Elgoibar Ikastolak
San Bartolome
Jai
zoriontsuak
opa dizkizue!



1962tik gelak bizipenez betetzen



Mekanizazio lanak



Fabrikazio gehigarria



BM
bronymec

Termoplastiko eta
konpositeetan adituak



Softlan

Albitxuri Industrialdea, 3i
943 748 105

info@softlan.biz - <https://eu.softlan.eus/>

**Gestio programetan
gaude espezializatuak.
Software ezberdinak dauzkagu.**

Ondo pasa jaietan!

administradores

Consejo Universitario de Colegios
de Administradores de Empresas
Euzkoako Enpresa Administrazioaren
Lanalaritza Komunitatea



**ROSA Mª
PINTADO**

Etaldeen Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679

rosapf@telefonica.net

Gure komunitateko igogailuaren atea eta kabina aldatu nahi ditugu. Jabe batzuek ez daude ados, eta jakin nahi nuke ea gastu horietan parte hartzea behartu ditzakegun ados ez dauden jabe horiek.

Oro har, obra horiek, industria-ikuskaritzak behartutako beste erreforma batzuek bezala, ez dira hobekuntzak, obra horren zenbatekoa gehiegizkoa ez bada behintzat. Ildo horretan, higiezinaren kontserbazio, gaikuntza, segurtasun eta irisgarritasun egokirako behar ez diren instalazioak direnez, legeak berak zehazten du kontzeptu hori. Beraz, industria-ikuskaritzak aginduta, igogailuan erreforma garrantzitsuak egin behar badira, komunitateak ezin du horien aurka egin; eta kasu honetan ulertzen dut atea eta kabinak aldatzea normaltasun baten barruan sartzen dela, higiezina bera eta komunitateko elementu komun hori behar den bezala kontserbatzeko.

AHOLKUA: Industria ikuskatzeko txosten batek zehazten ez badu, Jabeen Batzordeak onartu beharko du atea eta kabina egokitzea beharrezko jarduketa gisa. Eta kontrako iritziren bat badago, dauden legeko mekanismoak erabili beharko dira. Kasu horretan, aditu-irizpen batek zehaztuko du jarduketa horren kalifikazioa, beharrezkotzat jotzen dena, edo, hala badagokio, beharrezkoa ez den hobekuntzara mugatuko duena.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2

■ GAZTEEN EGUNA



AKABO, JAIEN MARATOIA

🎨👋 Aina Argoitia

Zazpi eguneko jaiak izan dira aurten Mendaroko santanak, bete-beteak. Adin eta gustu guztietako herritarrentzako ekintzak izan dira egitarauan, eta handia izan da herritarren parte-hartzea ere. Ekintzarik jendetsuena, ohi legez, Kuadrilla Eguneko herri-bazkaria izan da. Aurten, 530 lagun elkartu dira ikastolako jolastokian elkarrekin bazkaltzeko, 38 kuadrilla guztira. Beste modu batean esanda, herritarren laurden bat batu zen zapatuan paella-janera. Santa Ana eguneko aizkora txapelketak, Verdini dantza taldeak eta Elgoibarko Udal Musika Bandak goraino bete dute frontoia, eta txarangek, elektrotxarangek eta bereziki erromeria giroko taldeek girotu dituzte iluntze-gau parteak. Estreinakoz herrian debuta egin dutenak ere izan dira aurten. Konpartsa taldekoek bi buruhandi estreinatu dituzte, Rebel Boys herriko Punk talde gazteak eta Txola ta Potxola DJ mendaroez debuta egin dute, eta Mugi panderoa taldearekin estreinakoz aritu da Mendaron Andoni Riaño herriko musikaria. Bideoak eta argazki gehiago: barren.eus.





ADINEKOEN EGUNA





■ TXUPINAZOAREN EGUNA





■ SANTIXAGO EGUNA





SANTA ANA EGUNA







LUTXIMAK
LUTXIMAK
LURRA
MENDAGOZARAL 2. MENDARO

**Abuztuaren
27tik aurrera
hartu zure
txanda!**

943 033 835
613 995 572

**Oporrak:
Abuztuaren
10etik 26ra!**






**electricidad
PEROSANZ**

www.electricidadperosanz.com
eibar@electricidadperosanz.com

Ibargain 17, AC behea - Eibar
943 202 268

**EGUNEKO ZENTROA
ZUREKIN S.L.**



Azpilgoeta, 32
20850 Mendaro

Tel.: 943 031 746
e-posta: zurekin@euskalnet.net



TAXI

**Kontxi Urain
MENDARO**

**[Aeroportura
joan-etorriak!]**

**Mobila:
607 575 728**



KONPONKETA, BIRMOLDAKETA ETA
CNCra AUTOMATIZAZIOA.
ERREMINTA MAKINA BERRIA ETA
BIGARREN ESKUKOAREN SALMENTA.



SANTOS Y PATXI SERVICIO TECNICO S.L.

ESSER Industrialdea SE-5 ● 20850 Mendaro
943 741 658 / 639 710 183 ● Faxa: 943 742 346
www.santosypatxi.com ● comercial@santosypatxi.com

KUADRILLEN EGUNA





Gora santanak!



■ UMEEN EGUNA



b
barren

Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean

943 743 704
688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
Aita Agirre Kulturunea, 3. 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

Goldetu prezioak eta gustura erantzunago dizugu.

ABUZTUKO ORDUTEGIA:
ASTEARTETIK
LARUNBATERA:
08:30-13:30
(10etik 26ra itxita) **625 999 694**

OLATZ
ILEAPAINDEGIA
UNISEX

@olatz_ileapaindegia



IRIONDO

www.iriondo.com

IRAILA

2 ASTELEHENA

07:30 Lanerako txaranga. Mauxitxarekin.

SANTUMOTZ EGUNA

ABUZTUAK 4, DOMEKA

11:00 Hitzaren liturgia, Santumotzeko zelaian.

Gero, Armueta harategiak emandako salda eta txorizoa banatuko dituzte.

Jarraian, Mendiluze eta Peñagarikano bertsolariak.

13:00 Toka txapelketa.

Tarteka, Ansorregi eta Larrañaga soinu-joleak.

Ekitaldiaren amaieran, Maite Gourmet-ek emandako urdaiazpikoa zozkatuko dute.

14:30 Lagunarteko bazkaria San Pedro elkartean. (35 euro).

Izena emateko: 688 710 964.

Egun guztian zehar, soinujoleek eta bertsolariek alaituko dute jaia.

SAN ROKE EGUNA

ABUZTUAK 16, EGUAZTENA

Meza, Azkueko ermitan. Salda eta txorizoa ere banatuko dituzte.

SALLOBENTE-ERMUARANGO JAIK

ABUZTUAK 3, ZAPATUA

11:45 Txapliguak, jaiei hasiera emateko.

12:00 Meza.

Jarraian eta egunean zehar, Gorka eta Izarra trikitilariak.

14:00 Bakailao jana, bereziki, auzoko aiton-amonentzat, eta bestelako bazkariak bertaratzen direnentzat.

16:00 Umeentzako jolasak.

18:00 Euskal karaokea.

Jarraian, txokolatada.

20:00 Emakumezkoen Bolo Txapelketa.

23:00 Erromeria, Mugi Panderoa taldearekin.

00:00 Bolo txapelketa.

* Maalatik Sallobenterako autobus zerbitzua egongo da 11:30etik goizaldeko 05:00ak aldera arte.

* Bazkari eta afaritarako erreserbak egin daitezke, 662 107 700 telefonoan whatsappez.

ABUZTUAK 10, ZAPATUA

San Lorentzo Eguna

11:00 Prozesioa eta meza nagusia.

Ondoren, salda eta txorizoa, bertsolariekin.

DOLMENEN IBILBIDEA

ABUZTUAK 8, EGUENA

10:00 Karakaten (Gaztelaniaz)

ABUZTUAK 22, EGUENA

10:00 Karakaten (Gaztelaniaz)

ABUZTUAK 29, EGUENA

10:00 Karakaten (Euskaraz)

Izena emateko: 657 79 46 77 edo
info@begi-bistan.com

SAN ANTOLIN JAIAK

IRAILAK 1, DOMEKA

18:30 Zuhaitz sartzea.

IRAILAK 2, ASTELEHENA

11:00 Meza. Segidan, salda eta txorizoa banatuko dituzte.

IRAILAK 6, BARIKUA

18:30 Txapel eta oliba hezur jaurtiketa.

20:00 Bertso kalejira.

21:00 Bertso afaria Iker Zubeldia, Julio Soto eta Xabat Illarregirekin. Afaritarako tiketak salgai daude. Aurrez 30 euro; eguenean bertan: 35 euro. 649 445 552 edo 675 702 952 telefoetan eskatu daitezke irailaren 3ra arte.

Ondoren, musika, karpa itxi arte.

IRAILAK 7, ZAPATUA

14:00 Paella jana. (15 euro)

Ondoren, bingoa.

16:30 Mus txapelketa eta umeentzako merienda.

17:00 Umeentzako merienda.

17:30 Tortilla txapelketa.

18:00 Herri kirolak: Ane Ituarte, Karmele Gisasola, Mikel Agirre eta Unai Osa. Ondoren, txinga eramate parte-hartzailea eta Pultsu Txapelketa sariekin.

21:00 Afaria, Euskal Parrillaren eskutik.

23:00 Erromeria, Kitziki taldearekin.

01:00 Txokolatada eta errifaren zozketa

Ondoren, musika, karpa itxi arte.

Oharra: Zapatuan autobus zerbitzua egongo da Txarridunako errotondatik, 17:00etatik 02:00etara.

Botika ordutegiak:

09:00-13:00

16:00-20:00

GUARDIAK:

Egunez:

09:00-22:00

Larunbatak:

09:00-14:00 (■)

■ FERNANDEZ

Herriko Enparantza,4

Garagartza

(Mendaro)

943 756 142

■ SOTO

Rekalde, 1

(Soraluze)

943 751 638

■ ORUESAGASTI

Kalebarren, 9

(Soraluze)

943 751 384

UZTAILA

30 MARTITZENA Yudego

31 EGUAZTENA Yudego

ABUZTUA

1 EGUENA Arriola

2 BARIKUA Soto

3 ZAPATUA Yudego

4 DOMEKA Yudego

5 ASTELEHENA Arriola

6 MARTITZENA ■ Fernandez

7 EGUAZTENA Yudego

8 EGUENA ■ Oruesagasti

9 BARIKUA Arriola

10 ZAPATUA ■ Soto

11 DOMEKA ■ Soto

12 ASTELEHENA Yudego

13 MARTITZENA Arriola

14 EGUAZTENA ■ Fernandez

15 EGUENA ■ Oruesagasti

16 BARIKUA ■ Oruesagasti

17 ZAPATUA Barrenetxea

18 DOMEKA Barrenetxea

19 ASTELEHENA ■ Soto

20 MARTITZENA ■ Fernandez

21 EGUAZTENA Barrenetxea

22 EGUENA ■ Fernandez

23 BARIKUA Garitaonandia

24 ZAPATUA ■ Oruesagasti

25 DOMEKA ■ Oruesagasti

26 ASTELEHENA Barrenetxea

27 MARTITZENA ■ Soto

28 EGUAZTENA Garitaonandia

29 EGUENA Barrenetxea

30 BARIKUA ■ Fernandez

31 ZAPATUA Garitaonandia

IRAILA

1 DOMEKA Garitaonandia

2 ASTELEHENA ■ Oruesagasti

3 MARTITZENA Barrenetxea

4 EGUAZTENA ■ Soto

5 EGUENA Garitaonandia

6 BARIKUA Arriola



Norbait aldrebesa dela adierazteko.

Aldrebesa haiz benetan: mozolua bahitz, egunez kantaiko heuke!

Kontxi Gabilondok lagatako erretratu duzue hau. 1941eko abuztuaren 25ean ateratako argazkia da, Txiki Egunean hain zuzen ere. Garai hartan ohikoak izaten ziren argazkilariak herriko jaietan. Dekorazio bat jartzen zuten, eta herritarrek bilakatzen ziren paisaje hartako protagonista. Kasu honetan, Elgoibarrek itsasoa zeukala irudikatzen zuen dekorazioa erabili zuten. Argazkiko protagonistak Garate ahizpak dira: Rosario, Ana, Mari eta Mari Karmen.



Erretratu zaharrak behar ditugu

Atal honetan argitaratzeko moduko argazkirik baldin badaukazu, bi aukera dituzu guri helarazteko:

e-posta: barren@elgoibarkoizarra.eus

Barreneko bulegora ekarri:

Aiña Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.





Carmen Fernandez Banga

2024ko uztailaren 16an hil zen, 86 urte zituela.

Betirako izango zaitugu gogoan.

Sendiak



I.URTEURRENA

Karmel Iriondo Gonzalez

2023ko abuztuaren 12an hil zen, 63 urte zituela.

***Zu izan zarena ez da denboran galduko,
malkoak euritan bezala.***

Gurekin betiko.

Etxekoak



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA



943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar

info@funerariaetxeberria.com

www.funerariaetxeberria.com

**Kutzak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.**



Gora San Bartolome!